

ZUZENBIDE GRADUA

2014-2015

**JUDIZIO AURREKO KUESTIOEN
IGORPENA**

EGILEA: *MAITE JAUREGI SERRANO*

**ZUZENDARIA: *JUAN IGNACIO UGARTEMENDIA
ECEIZABARRENA***

AURKIBIDEA

- **SARRERA** 3.or.

- **HIZKUNTZARI BURUZKO OHARRA** 4.or.

- 1. **ATALA: JUDIZIO AURREKO PROZEDURA** 5.or.
 - 1.1. KONTZEPTUA 5.or.
 - 1.2. EZAUGARRIAK ETA HELBURUAK 7.or.

- 2. **ATALA: JUDIZIO AURREKO KUESTIOEN IGORPENA** 9.or.
 - 2.1. KUESTIOEN OBJEKTUA 9.or.

 - 2.2. KUESTIOEN IGORPENA EGITEKO ESKUDUNTZA DUTEN
ORGANOAK 16.or.
 - 2.2.1. ORGANO JURISDIKZIONAL NAZIONALAK 16.or.
 - 2.2.2. NOZIO KOMUNITARIOAREN GEHIEGIZKO HEDAPENA 21.or.

2.3. KUESTIOEN IGORPENA EGITEAREN ERABAKIA	24.or.
2.3.1. KUESTIOAK IGORTZEKO AHALMENA DUTEN ORGANOAK ETA OBLIGAZIOA DUTENAK	25.or.
2.3.1.1. <i>Ebazpenaren aurka errekurtsua tarteratu ahal da?</i>	26.or.
2.3.1.2. <i>Beharrezkoa al da kuestioak igortzea kasua ebazteko?</i>	29.or.
2.3.2. IGORTZEKO OBLIGAZIOAREN SALBUESPENAK	32.or.
2.3.2.1. <i>Acte éclairé doktrina</i>	32.or.
2.3.2.2. <i>Acte clair doktrina</i>	35.or.
2.4. KUESTIOEN IGORPENA EGITEA	38.or.
2.4.1. KUESTIOEN IGORPENERAKO MOMENTUA	39.or.
2.4.2. IGORPENAREN FORMA ETA EDUKIA	40.or.
2.5. KUESTIOEN IGORPENAREN EFEKTUAK ORGANO JURISDIKZIONAL NAZIONALEAN	41.or.
• <u>KONKLUSIOAK</u>	43.or.
• <u>BIBLIOGRAFIA</u>	45.or.

SARRERA

Lan honen helburua Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari zuzendutako judizio aurreko kuestioen igorpena aztertzea da. Azterketa hori, kuestioen igorpena soilik mugatuko da: epaile nazionala barne kasuan zuzenbide komunitarioaren aplikazioarekin topatzen den momentutik, kuestioak Justizia Auzitegira iritsi arte. Beraz, ez da landuko behin kuestioak planteatuta Justizia Auzitegiaren aurrean garatzen den prozedura, ezta prozedura horren emaitza den judizio aurreko epaiaren efektuak ere.

Judizio aurreko prozedurak izugarritzko garrantzia du Europar Batasuneko zuzenbidearen eboluzioan: Estatu kideetako eta Europar Batasuneko sistema legalen arteko uztarri bihurtu da. Mekanismo hori, auzitegi nazionalak sistema jurisdikzional komunitarioan integratzeko baliabidea da, horiek Europar Batasuneko zuzenbidearen exekutatzailerik bihurtuz. Baina integrazio hori kooperazioan oinarrituz gauzatzen da eta ez hierarkian. Auzitegi bakoitza bere eskuduntzen barruan aritzen da eta batak bestearen beharra du Batasuneko zuzenbidearen interpretazio eta aplikazio egoki eta eraginkorra burutzeko.

Bestalde, prozedura honen bitartez bideratu izan dute Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak eta Estatu kideetako organo jurisdikzionalak zuzenbide komunitarioaren eta nazionalaren arteko gatazkak.

Judizio aurreko prozedurak garrantzia du baita ere, Europar Batasuneko zuzenbideko printzipio nagusienetarikoa ezartzeko tresna izan delako. Judizio aurreko prozeduraren bidez ezarri ziren adibidez zuzenbide komunitarioaren efektu zuzenaren eta lehentasunaren printzipioak.

Prozedura honek Zuzenbide Europarrean duen garrantzia ikusirik, lan honetan judizio aurreko kuestioen igorpena aztertuko da. Horretarako, azalpena bi ataletan banatu da:

- **Lehen atalean**, judizio aurreko prozeduraren kontzeptua eta alderdi orokorrak aipatzen dira.
- **Bigarren atalean**, judizio aurreko kuestioen igorpenaren funtzionamendua lantzen da. Lehenik eta behin, igorpen horren objektua aztertuko da, kuestioak zerri buruzkoak izan daitezkeen alegia. Bigarrenik, kuestioen igorpena egiteko

eskudunak diren organo jurisdikzionalen kontzeptua azalduko da. Jarraian, epaile nazionalak kuestioak igortzeko erabakia nola eta zerren arabera hartzen duen azalduko da. Ondoren, igorpena beraren edukia eta forma aipatuko dira. Azkenik, kuestioen igorpena egiteak organo jurisdikzional nazionalean duen eragina ikertuko da.

HIZKUNTZARI BURUZKO OHARRA

Lan honen iturrien gehiengoa gaztelaniaz eta ingelesez daudenez, aipua eta zenbait dokumenturen izenak bertsio originaleko hizkuntzan mantendu dira. Bestalde, normalean gaztelaniaz erabiltzen diren siglak euskaratu dira.

Lagungarri izan daitekeelakoan, nahasgarriak suertatu daitezkeen termino eta siglen zerrenda bat gehitu da:

- *Acte clair*: Gaztelaniaz: acto claro.
- *Acte éclairé*: Gaztelaniaz: acto aclarado.
- EBAO: Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala. Gaztelaniaz: DOUE, Diario Oficial de la Unión Europea.
- EBFT: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu. Gaztelaniaz: TFUE, Tratado de Funcionamiento de la Union Europea.
- EBJA: Europar Batasuneko Justizia Auzitegia. Gaztelaniaz: TJUE, Tribunal de Justicia de la Union Europea.
- Judizio aurreko kuestioa: Gaztelaniaz: Cuestión prejudicial.

Azkenik, aipatzekoa da, EBFT 267.artikuluaren euskarazko bertsioa HAEE-IVAPek eskuragarri jarritakoa dela. Bertan, “epaitu aurreko arazo” eta “Estatu barruko jurisdikzio-organu” esamoldeak erabiltzen diren arren, lan honetan nahiago izan da “judizio aurreko kuestio” eta “organo jurisdikzional nazionala” esamoldeak erabiltzea, beren erabilera hedatuagoa eta errazagoa suertatu daitekeelakoan.

1. ATALA: JUDIZIO AURREKO PROZEDURA

1.1. KONTZEPTUA

Judizio aurreko prozedura Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren (aurrerantzean Justizia Auzitegia) aurrean egikaritu daitezkeen prozeduretako bat da. Prozedura honen bidez, Estatu kideetako epaileei aukera ematen zaie Justizia Auzitegiari kuestioak igortzeko beraiek ebatzi behar duten kasuan (aurrerantzean barne kasua edo kasu nazionala) aplikagarri den zuzenbide komunitarioaren interpretazioari edo baliozkotasunari buruz. Beste era batera esanda, judizio aurreko prozeduraren bitartez Justizia Auzitegiak, epaile nazional baten eskariz, zuzenbide komunitarioaren interpretazioari edo baliozkotasunari buruzko ebazpen bat ematen du.

Ondoren, epaile nazionalak emandako erantzuna kontutan izanda ebatziko du barne kasua. Epaileen arteko hartu-emanerako mekanismo bat da beraz, alderdiek ahal dute eskatu kuestioak planteatzea baina epaile nazionalaren erabakia izango da.

Ikus daitekeenez, judizio aurreko prozeduran funtzio jurisdikzionalaren egikaritzea zatitu egiten da: alde batetik, Justizia Auzitegiak zuzenbide komunitarioari loturiko interpretaziozko eta baliozkotasunezko zalantzak argitzen ditu, eta bestetik, organo jurisdikzional nazionalak zuzenbide komunitarioaren aplikazio egokia gauzatzen dute barne kasua ebazterakoan.¹

Judizio aurreko prozedura lehen aldiz jaso zen 1957ko Komunitate Ekonomiko Europararren Sorrera Tratatuko 177.artikulan. Gerora, 1992tik aurrera, Komunitate Europararren Sorrera Tratatuko 234.art. jaso zen. 2009tik, Lisboako Tratatua indarrean sartu zenetik, judizio aurreko prozedura Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatuko (aurrerantzean EBFT) 267. artikuluan erregulatzen da.

Artikulu horrek honela dio:

«Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak eskumena dauka, epaitu aurreko arazoan kasuan, ebazpena emateko:

¹ ALONSO GARCÍA, Ricardo. *Sistema jurídico de la Unión Europea*. 4. Edizioa. Cizur Menor: Civitas, 2014. 558.or.

- a) *Tratatuen interpretazioaz*
- b) *Batasuneko instituzio, organo edo organismoek onartutako egintzen baliozkotasunaz eta interpretazioaz.*

Estatu kideren bateko jurisdikzio-organoren bati era horretako arazoren bat aurkezten bazaio, organo horrek, bere epaitza emateko beharrezkotzat jotzen badu gaiaren gaineko erabakiren bat, Auzitegiari eska diezaioke arazoaz erabaki bat hartzeko.

Estatu barruko jurisdikzio-organon batean oraindik erabaki gabe dagoen gai baten gainean era horretako arazoren bat aurkezten denean, eta organo horren ebazpenek barne-zuzenbidean ezin badute gero beste auzi-bidezko errekurtsorik jaso, Auzitegiaren menpe jarri behar du auzia organo horrek.

Estatu barruko jurisdikzio-organon batean oraindik erabaki gabe dagoen gai baten gainean era horretako arazoren bat aurkezten denean askatasungabetuta dagoen pertsona bati buruz, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak al bait arinen erabaki behar du.»

Adierazten den moduan epaile nazionalak Justizia Auzitegira igortzen dituen kuestioen objektu izan daitezke bai tratatuak eta baita Batasuneko instituzio, organo eta organismoek onartutako egintzak ere.

267. artikulua kuestioen objektuaren interpretazioa eta baliozkotasuna aipatzen ditu. Horrela, bi kuestio mota bereizten dira: interpretaziozkoak eta baliozkotasunezkoak.

- **Interpretaziozkoak:** Epaile nazionalak zuzenbide europarreko xedapen bat interpretatu dezan eskatzen dio Justizia Auzitegiari, horrela, barne kasuan modu egokian aplikatzeko. Kuestio mota hauen objektu izan daitezke Batasuneko jatorrizko zuzenbidea eta baita zuzenbide eratorria ere².
- **Baliozkotasunezkoak:** Epaile nazionalak Justizia Auzitegiari zuzenbide europarreko egintza baten baliozkotasuna kontrolatzea eskatzen dio.

² KOTZUR, Markus. «Article 267 [Preliminary rulings] (ex article 234 TEC)». GEIGER, Rudolf, KHAN, Daniel-Erasmus eta KOTZUR, Markus. *European Union Treaties: Treaty on the European Union Treaty on the Functioning of the European Union*. 1. edizioa. Oxford: C.H. BECK – HART, 2015. 895.or.

Baliozkotasunezko kuestioek ez diote erreferentzia egiten jatorrizko zuzenbideari³.

Artikulu horretako 2 eta 3 paragrafoetan judizio aurreko prozedura erabili dezaketen organoen artean bereizketa bat egiten da beren ebazpenen aurka errekurtsorik tarteratu daitekeen edo ez kontuan izanda (bereizketa hau sakonago aztertuko da 2.3.1. puntuan)

1.2. EZAUGARRIAK ETA HELBURUAK

Judizio aurreko prozedura, izenak esaten duen bezala, **aurretiatzkoa** da. Barne gatazkaren ebazpenaren aurretik gauzatzen den prozedura da eta Justizia Auzitegisaren erantzunak gatazka horren emaitza baldintzatu dezake⁴.

Hori dela eta, judizio aurreko prozedura, berez, ezingo litzateke kontsideratu errekurtsio bezala, baizik eta barne **gatazkaren garapenean jotzen den gertakari** bezala. Gertakari honek barne gatazkaren **prozesua eteten du** behin behinekoz eta beraz, fondoari buruzko ebazpena atzeratu egiten da planteatutako kuestioei erantzuna eman arte⁵.

Garrantzitsua da azpimarratzea Justizia Auzitegiak **ez duela ebazten barne gatazkaren inguruan**, hau da, ez du aztertzen barne organo nazionalaren ardura den kasua⁶.

Gainera, judizio aurreko prozedura **ez da liskartsua edo kontentziosoa**. Izan ere, alderdien arteko liskarra barne gatazkari dagokio eta ez Justizia Auzitegiaren aurrean garatzen den prozesuari. Bertan, ez dira egongo auzia aurkezten duen alderdi bat eta horri aurka egiten dion beste bat. Horren ordez, interesatuak daude, hau da, prozesuan oharrak adieraziz parte hartzera legitimatuta dauden subjektuak⁷.

³ KOTZUR, Markus. Ibíd. 896.or.

⁴ CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Juez nacional – Tribunal de Justicia: la cuestión prejudicial». BENEYTO PÉREZ, José María (zuz.), MAILLO GONZÁLEZ-ORÚS, Jerónimo (Koord.), BECERRIL ATIENZA, Belén (Koord.). *Tratado de derecho y políticas de la Unión Europea*. 5. liburukia: *Sistema jurisdiccional de la UE*. Madrid: Aranzadi, 2012. 559.or.

⁵ Loc. Cit.

⁶ Loc. Cit.

⁷ Loc. Cit.

Mekanismo prozesal hau Justizia Auzitegiaren eta organo jurisdikzional nazionalen **harremanetarako tresna nagusia** da. Harreman hori, kontrakoa dirudien arren, ez da hierarkikoa, **kooperaziozkoa** baizik⁸. Aurrez esan bezala, funtzio jurisdikzionala banatu egiten da, ez da eskusiboki Justizia Auzitegiaren boterea. Judizio aurreko prozedurak ahalbidetzen duen kooperazio horren bitartez Estatu kideetako organo jurisdikzionalak Europar Batasuneko sistema jurisdikzionalan txertatzen dira.

Kooperazio horrekin epaile nazionalari **zuzenbide komunitarioaren aplikazioa erraztu** nahi zaio. Baina, auzitegien arteko hartu-eman horren helburu nagusia Europar Batasuneko zuzenbidearen **interpretazio eta aplikazio uniformearen lortzea** da. Izan ere, Estatu kideetan aplikagarri diren arauak izate hutsa uniformitatea lortzeko hasierako pausoa izan arren, uniformitate hori ez da osoa izango arau horiek ez badira modu berean interpretatzen eta aplikatzen Europar Batasun osoan⁹. Beste era batera esanda, Judizio aurreko prozedurarekin ebazpen judizial nazionalen arteko dibergentziak ekidin nahi dira. Gainera, Estatu kideetan zuzenbide komunitarioarekin bat ez datorren jurisprudentzia sortzea saihesten da.

Beste ikuspuntu batetik begiratuta, EBFTko 267.artikuluak eskaintzen duen sistema Europar Batasuneko **ordena eta segurtasun juridikoa mantentzeko baliabidea** da. Horretaz aparte, **babes jurisdikzional eraginkorrerako** oinarrizko eskubidea ziurtatzen du eta **zuzenbidezko berdintasuna bermatzen du** Europar Batasuneko herritar guztientzat.

⁸ KOTZUR, Markus. Op. cit., 895.or.

⁹ ALONSO GARCÍA, Ricardo. «La cuestión prejudicial, piedra angular de la integración europea». ALONSO GARCÍA, Ricardo eta UGARTEMENDIA ECEIZABARRENA, Juan Ignacio (zuzendariak). *La cuestión prejudicial europea*. European inklings (EUi) 4. zb. Oñati: HAEE-IVAP, 2014. 9.or.

2. ATALA: JUDIZIO AURREKO KUESTIOEN

IGORPENA

2.1. KUESTIOEN OBJEKTUA

Judizio aurreko prozeduraren funtzionamendua aztertzen hasteko oinarrikoa da epaile nazionalak planteatzen dituzten kuestioen objektua zehaztea. Hau da, zein da epaileek Justizia Auzitegira igorritako kuestioen objektua? Ze araren inguruan planteatu daitezke kuestioak? Edo beste ikuspuntu batetik begiratuta, zerren inguruan ebatzi dezake Justizia Auzitegiak judizio aurreko prozeduran? Alegia, zein da bere eskuduntza?

Oro har, esan ohi da epaile nazionalak beren barne kasuan aplikatu beharreko europar zuzenbideari buruzko kuestioak igorri ditzaketela. Tratatuak modu zehatzagoan esaten dute zein arau izan daitezkeen kuestioen objektu.

Europar Batasuneko Tratatuaren 19.3.b) artikulua honela dio:

«3. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, Tratatuaren arabera, hauei buruz emango ditu ebazpenak:

[...]

b) epaitu aurreko arazoaren kasuan, estatu kideetako jurisdikzio-organismoek halaxe eskatuta, Batasuneko Zuzenbidearen interpretazioari buruz edo instituzioek onartutako egintzen baliozkotasunari buruz; »

EBFTko 267.artikulua berriz honela dio:

«Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak eskumena dauka, epaitu aurreko arazoaren kasuan, ebazpena emateko:

a) Tratatuaren interpretazioaz

b) Batasuneko instituzio, organo edo organismoek onartutako egintzen baliozkotasunaz eta interpretazioaz.

Beraz, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak eskuduntza izango du judizio aurreko prozeduran ebazteko Tratatuaren interpretazioaren inguruan eta Batasuneko erakunde, organo eta organismoek onartutako egintzen interpretazioaren eta baliozkotasunaren inguruan.

Bi artikuluek interpretaziozko eta baliozkotasunezko kuestioak bereizten dituzte. Bi modalitate horiek ordea, erregimen juridiko bera dute, azken finean helburua berdina baita: ordenamendu juridiko komunitarioaren batasuna ziurtatzea¹⁰. Baina kuestio mota horien objektuan desberdintasunak nabari dira.

Interpretaziozko kuestioen objektu izan daitezke Europar Batasuneko zuzenbidearen iturri guztiak (jatorrizko zuzenbidea nahiz zuzenbide eratorria)¹¹, berdin duelarik bere derrigorrezko izaera, bere maila edo bere autorea. Horien barne, Justizia Auzitegiaren epaiak eta Europar Batasuneko erakunde, organo eta organismoen egintzak¹².

Baliozkotasunezko kuestioen objektua aldiz mugatuagoa da, ez baitu barne hartzen jatorrizko zuzenbidea. Ezin da ezta ere baliozkotasunezko judizio aurreko kuestiorik planteatu Justizia Auzitegiaren judizio aurreko epaien inguruan, horiek irmoak baitira eta ez baita onartzen errekurtsorik beren aurka. Noski, ezta ere ez da posible izango baliozkotasunezko kuestioak planteatzea Europar Batasuneko egintza ez lotesleen inguruan, bere izaeragatik epaile nazionalak ez aplikatzea erabaki dezakeelako¹³.

Hala ere, Justizia Auzitegiak modu malgu eta zabalean erabili ditu artikuluetan azaldutako irizpide horiek. Ondorioz, askotan, zalantzak sortzen dira bere eskuduntzaren irismenaren inguruan. Tratatuetan aipatzen diren “Europar Batasuneko zuzenbide” eta “instituzioek onartutako egintza” kontzeptuak ez dira hertsiki hartzen aintzat eta beraz, kuestioen objektua alde batetik eta Auzitegiaren eskuduntza bestetik, modu malgu eta zabalean tratatu izan dira.

¹⁰ CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Juez nacional – Tribunal de Justicia...». Op. Cit., 565.or.

¹¹ KOTZUR, Markus. Op. cit., 895.or.

¹² CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Juez nacional – Tribunal de Justicia...». Op. Cit., 565-566.orr.

¹³ *Ibíd.*, 566.or.

Malgutasun horren adibide dira nazioarteko hitzarmenak. Tratatueta aipatutako “instituzioen egintzak” kontzeptua era zabalean kontsideratu da eta nazioarteko hitzarmenak bertan sartu dira Kontseiluaren egintzak direla ulertuz¹⁴.

Baina zehaztaperen bat egitea beharrezkoa da: Europar Batasunak eginiko nazioarteko hitzarmenen interpretazioari buruzko kuestioak planteatu daitezke, baina ez baliozkotasunezkoak. Hau da, judizio aurreko prozeduraren bitartez ezin da aztertu nazioarteko hitzarmenen baliozkotasuna, baina bai beren interpretazioa¹⁵.

Nazioarteko hitzarmenen baliozkotasuna aztertzeari ezarritako muga hori 2005eko *Van Parys* kasuko epaian ikus dezakegu¹⁶. Kasu honetan, Justizia Auzitegiak ebazpena eman zuen nazioarteko hitzarmen bat burutzeko baimena ematen zuen Kontseiluaren egintza baten inguruan. Baina, ez zuen ebatzi nazioarteko hitzarmenaren baliozkotasunaren inguruan, hau ez baita berez Europar Batasuneko erakundearen egintza bat, baizik eta Batasunaren eta hirugarren arteko hitzarmen bat.

Malgutasunaren beste adibide bat 1989ko *Grimaldi* kasuan aurki daiteke¹⁷. Kasu honetan, Justizia Auzitegiaren eskuduntza zabaldu egin zen gomendioen gaineko judizio aurreko kuestioetara. Gomendioak lotesleak ez izan arren, Auzitegiak horien inguruan ebatzi dezake judizio aurreko prozeduran. Honela adierazi zuen epaiak:

«En la medida en que la cuestión prejudicial versa sobre la interpretación de recomendaciones, que, a tenor del párrafo 5 del artículo 189 del Tratado CEE, carecen de efecto vinculante, conviene preguntarse si, a la vista del artículo 177 del propio Tratado, el Tribunal de Justicia es competente para resolver sobre la misma.»

A este respecto, basta con declarar que, a diferencia del artículo 173 del Tratado CEE, que excluye el control del Tribunal de Justicia sobre aquellos actos cuya naturaleza jurídica sea la de una recomendación, el artículo 177 atribuye al Tribunal de Justicia competencia para pronunciarse, con carácter

¹⁴ DE LA MARE, Thomas eta DONNELLY, Catherine. «Preliminary rulings and EU legal integration: Evolution and stasis». CRAIG, Paul eta DE BÚRCA, Gráinne. *The evolution of EU Law*. 2.edizioa. New York: Oxford University Press, 2011. 367.or.

¹⁵ CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Juez nacional – Tribunal de Justicia...». Op. Cit., 566.or.

¹⁶ EBJaren Epaia, 2005eko martxoaren 1ekoa, *Léon Van Parys NV v BIRB* (C-377/02)

¹⁷ EBJaren Epaia, 1989ko abenduaren 13koa, *Grimaldi v Fonds des maladies professionnelles* (C-322/88)

prejudicial, acerca de la validez y la interpretación de los actos adoptados por las instituciones de la Comunidad sin excepción alguna.»¹⁸

Nazioarteko hitzarmen eta gomendioez gain, *Gestoras pro Amnistía* kasuan ¹⁹ Justizia Auzitegiaren eskuduntza Posizio Komunetara hedatu zen. Honela arrazoitu zuen Justizia Auzitegiak:

«Al no referirse a la posibilidad de los órganos jurisdiccionales nacionales de plantear al Tribunal de Justicia una cuestión prejudicial relativa a una posición común, sino únicamente cuestiones relativas a los actos enumerados en el artículo 35 UE, apartado 1, esta disposición determina que pueden ser objeto de una petición de decisión prejudicial todos los actos adoptados por el Consejo dirigidos a producir un efecto jurídico frente a terceros. En la medida en que la finalidad del procedimiento que permite al Tribunal de Justicia pronunciarse con carácter prejudicial es garantizar el respeto del Derecho al interpretar y aplicar el Tratado, sería contrario a dicho objetivo interpretar restrictivamente el artículo 35 UE, apartado 1. Por tanto, debe admitirse la posibilidad de someter con carácter prejudicial al Tribunal de Justicia cualquier asunto relativo a disposiciones adoptadas por el Consejo, con independencia de su naturaleza o de su forma, dirigidas a producir efectos jurídicos frente a terceros (véanse, por analogía, las sentencias de 31 de marzo de 1971, Comisión/Consejo, denominada «AETR», 22/70, Rec. p. 263, apartados 38 a 42, y de 20 de marzo de 1997, Francia/Comisión, C-57/95, Rec. p. I-1627, apartados 7 y siguientes).

En consecuencia, debe poder someterse al control del Tribunal de Justicia una posición común que, por su contenido, tiene un alcance que excede el que atribuye el Tratado UE a este tipo de acto. Por tanto, un órgano jurisdiccional que conoce de un litigio en el que, de manera incidental, se suscita la cuestión de la validez o de la interpretación de una posición común adoptada con arreglo al artículo 34 UE, como sucede en el presente asunto con la Posición común 2001/931 y, en cualquier caso, con su artículo 4 y su anexo, y que alberga serias dudas acerca de si dicha posición común despliega en realidad efectos jurídicos

¹⁸ *Ibíd.*, 7. eta 8. paragrafoak.

¹⁹ EBJAren Epaia, 2007ko otsailaren 27koa, *Gestora pro Amnistía eta besteak v Kontseilua* (C-354/04)

frente a terceros, podría solicitar al Tribunal de Justicia que se pronunciara con carácter prejudicial en las condiciones enunciadas en el artículo 35 UE. Correspondería entonces al Tribunal de Justicia comprobar, en su caso, si la posición común despliega efectos jurídicos frente a terceros, determinar la verdadera naturaleza del acto y pronunciarse con carácter prejudicial.»²⁰

Berez, tratatuek Justizia Auzitegiari ez diote aitortzen Posizio Komunak berrikusteko ahalmenik. Baina kasu honetan Justizia Auzitegiak ez zuen interpretazio hertsia bat egin eta judizio aurreko prozeduraren xedea errespetatzearen Posizio Komunitaria hedatu zuen judizio aurreko kuestioen objektua. Epai horretan adierazi zenez, hirugarrenei efektuak sortzera bideratutako edozein neurri izan daiteke judizio aurreko igorpenaren objektu, Posizio Komunak barne.

Bestalde, botereak eskuordetzen zaizkien organoek (adibidez, *Ombudsman* europarra) onartutako egintzak ere judizio aurreko prozeduraren objektu izan daitezke²¹.

Barne legezlaritza dagokionez, Justizia Auzitegiak ezin du zuzenbide nazionala interpretatu, honek barne kasuan duen aplikazioaren inguruan iritzirik eman edo zuzenbide komunitarioaren aurkakoa dela deklaratu. Auzitegiak ezingo du ezta ere barne kasuko egitatezko kuestioei buruz iritzirik eman, egitateen egitasunik baieztatu edo horiek kalifikatu interpretatu beharreko arau komunitarioa aplikatzen zaien edo ez ikusteko²².

Baina esan bezala, Justizia Auzitegiaren eskuduntzaren mugak malgutasunez tratatzen dira. Horren erakusle litzateke judizio aurreko prozedura arau nazionalen eta Europar Batasuneko zuzenbidearen arteko bateragarritasuna aztertzeke erabiltzea. Batzuetan Justizia Auzitegiak epaile nazionalak adierazitako kuestioetan oinarrituz egiten duen interpretazioak eragina izan dezake barne zuzenbidearen baliozkotasuna ezartzeko²³. Horren adibide bezala *Eurowings* kasua dugu²⁴:

«Mediante su cuestión prejudicial el órgano jurisdiccional remitente pretende esencialmente que se dilucide si el artículo 59 del Tratado se opone a una

²⁰ *Ibíd.*, 53. eta 54. paragrafoak.

²¹ CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Juez nacional – Tribunal de Justicia...». *Op. Cit.*, 567.or.

²² *Ibíd.*, 569.or.

²³ DE LA MARE, Thomas eta DONNELLY, Catherine. *Op. cit.*, 367 eta 368.or.

²⁴ EBJaren Epaia, 1999ko urriaren 26koa, *Eurowings Luftverkehrs AG v Finanzamt Dortmund-Unna* (C-294/97)

normativa nacional en materia de Impuesto sobre Actividades Económicas como la controvertida en el asunto principal.

[...]

Procede señalar, en primer lugar, que aunque, en el estado actual del Derecho comunitario, la materia de los impuestos directos no está incluida, como tal, en la esfera de competencia de la Comunidad, no es menos cierto que los Estados miembros deben ejercer las competencias que conservan respetando el Derecho comunitario (véase, en particular, la sentencia de 14 de febrero de 1995, Schumacker, C-279/93, Rec. p. I-225, apartado 21).

[...]

Pues bien, una normativa de un Estado miembro como la controvertida en el asunto principal, que reserva una ventaja fiscal a la mayor parte de las empresas que alquilan bienes de arrendadores establecidos en dicho Estado, mientras que priva de ellas en todos los casos a las empresas que alquilan bienes de arrendadores establecidos en otro Estado miembro, provoca una diferencia de trato por razón del lugar de establecimiento del prestador de los servicios prohibida por el artículo 59 del Tratado.

[...]

Procede, por tanto, responder al órgano jurisdiccional nacional que el artículo 59 del Tratado se opone a una normativa nacional en materia de Impuesto sobre Actividades Económicas como la controvertida en el litigio seguido en el procedimiento principal.»²⁵

Aipatu beharrekoa da ordea, orain arte ikusitako malgutasunari mugak jarri izan zaizkiola zenbait kasutan. Alegia, kuestioen objektuarekiko mugatze bat eman izan da. Adibidez, ezingo da judizio aurreko kuestiorik planteatu Zuzenbide osagarria deritzonaren inguruan (hitzarmen komunitarioak eta Estatu kideen artean burututako hitzarmen komunitarioak). Izan ere, hori ez da berez Europar Batasuneko zuzenbidea

²⁵ *Ibíd.*, 23, 32, 40 eta 46. paragrafoak

eta beraz, Justizia Auzitegiak eskuduntza izango du soilik hitzarmenean hala aitortzen bada esanbidez ²⁶.

Bestalde, Justizia Auzitegiak objektuari dagokionez jarrera mugatua azaldu zuen 2004ko Estatu kide berrien atxikipenean. *Ynos kft v János Varga* kasuan²⁷ atxikipen aurretik gertatutako egintzetan oinarritutako igorpenei buruz ebatzi zuen Auzitegiak. Epaille nazionalak aurkeztutako hirugarren kuestioak honela zioen:

«¿Es pertinente de alguna forma, desde el punto de vista de la aplicación del Derecho comunitario, el hecho de que el litigio se haya iniciado antes de la adhesión de la República de Hungría a la Unión Europea, pero después de la adaptación del Derecho nacional a las disposiciones de la Directiva?»²⁸

Justizia Auzitegiak honela erantzun zuen:

«Pues bien, el Tribunal de Justicia tiene competencia para interpretar la Directiva únicamente por lo que respecta a su aplicación en un nuevo Estado miembro a partir de la fecha de adhesión de éste a la Unión Europea (véase, en este sentido, la sentencia de 15 de junio de 1999, Andersson y Guaneras-Andersson, C-321/97, Rec. p. 1-3551, apartado 31)

Puesto que, en este caso, los hechos del litigio principal son anteriores a la adhesión de la República de Hungría a la Unión Europea, el Tribunal de Justicia no es competente para interpretar la Directiva.

A la vista de lo anterior, procede responder a la tercera cuestión prejudicial que, en circunstancias como las del litigio principal, cuyos hechos son anteriores a la adhesión de un Estado a la Unión Europea, el Tribunal de Justicia no es competente para contestar a las cuestiones primera y segunda.»²⁹

Beraz, igorritako kuestioen oinarri diren gatazkako egitateak estatuaren atxikimendua baino lehenago gertatu zirenez ez ziren kuestioak onartu.

²⁶ CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Juez nacional – Tribunal de Justicia. ...». Op. Cit., 567.or.

²⁷ EBJAren Epaila, 2006ko urtarilaren 10eko, *Ynos kft v János Varga* (C-302/04)

²⁸ *Ibíd.*, 29. paragrafoa, 3. kuestioa.

²⁹ *Ibíd.*, 36, 37 eta 38. paragrafoak.

Baina azaldutako kuestioen objektuarekiko jarrera mugatu hauek salbuespenezkoak direla esan daiteke. Izan ere, oro har, esan bezala, Justizia Auzitegiak jarrera malgua eta zabala erakutsi izan du.

Azkenik aipatzekoa da zenbait kasutan Justizia Auzitegia ez dela guztiz atxikitzen epaile nazionalak eginiko kuestioetara eta bertan eskatzen zaiona bakarrik erantzutera. Judizio aurreko prozeduran Justizia Auzitegiaren helburua epaile nazionalarentzako erabilgarri izatea da. Horren ondorioz, batzuetan gerta daiteke Justizia Auzitegiak, berari planteatutako kuestioak birformulatzea bere interpretazioa barne kasuko egitatezko inguruabarretara eta inguruabar juridikoetara egokitzeko. Izan ere, erantzun abstraktu bat ematea ez litzateke guztiz lagungarria izango epaile nazionalarentzat³⁰. Baita ere gertatu ohi da, Auzitegiak epaile nazionalari barne kasua ebazteko erabilgarri diren zuzenbide komunitarioaren interpretaziozko elementuak ematea, nahiz eta epaile nazionalak horiek aipatu ez izan planteatutako kuestioetan³¹.

2.2. KUESTIOEN IGORPENA EGITEKO ESKUDUNTZA DUTEN ORGANOAK

2.2.1. ORGANO JURISDIKZIONAL NAZIONALAK

EBFTko 267. artikuluko bigarren paragrafoaren arabera, Estatu kideetako organo juridikzional bat interpretaziozko edo baliozkotasunezko arazo batekin topatzen denean, Europako Justizia Auzitegiari beronen inguruan ebazpen bat ematea eska diezaioke, beti ere ebazpen hori beharrezkoa kontsideratzen badu barne kasua ebazteko.

Kuestioen igorpena ez dago beraz barne kasuko alderdien esku. Horiek ezin dute zuzenean kuestioa planteatu Europako Justizia Auzitegian³². Beraz, judizio aurreko kuestioak planteatzeko eskuduntza organo juridikzional nazionalak dute. Aldiz, ez zaie eskuduntza hori izaera administratiboko organoei aitortzen.

Organo juridikzional nazionalen esku egongo da erabakitzea ea judizio aurreko kuestioak igortzea beharrezkoa den eta zein izango litzatekeen igorritako kuestioa.

³⁰ CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Juez nacional – Tribunal de Justicia...». Op. Cit., 569.or.

³¹ DE LA MARE, Thomas eta DONNELLY, Catherine. Op. Cit., 368.or.

³² GIRÓN LARRUCEA, José Antonio. *El sistema jurídico de la Unión Europea, la reforma realizada en el tratado de Lisboa*. Valencia: Tirant Lo Blanch, 2008. 279.or.

Kuestioak planteatzeko eskuduntza duten organoen zehaztapen honek argia dirudi hasiera batean. Baina kontuan izanik Europar Batasunean barne ordenamendu juridiko anitz daudela, “organo jurisdikzional” kontzeptuaren definizioak ñabardura eta xehetasun desberdinak izan ditzake.

Hori dela eta, kuestioak planteatzeko ahalmena duten organoen zehaztapena konplexua bihurtzen da eta zalantzak sortzen dira: zer da zehazki organo jurisdikzional bat EBFTko 267.artikuluaren efektuetarako?

Galdera honen erantzuna barne zuzenbidearen esku lagatzea ez litzateke izango zuhurra edo zentzuzkoa. Izan ere, hori eginez gero, EBFTko 267. artikulua esanahi eta efektu ezberdina izango luke Estatu kide bakoitzean, bertako ordenamendu juridikoan “organo jurisdikzional” kontzeptuari ematen zaioen definizioaren arabera. Judizio aurreko kuestioen mekanismoaren erabilera Estatu kideetako barne ordenamenduaren menpe geratuko litzateke. Ondorioz, bizitza ekonomiko eta sozial europarreko sektore ugari Justizia Auzitegiaren kontrolpetik at geratuko liriteke Estatu kideen borondatez³³. Hori noski, judizio aurreko prozeduraren xedeen aurka egongo litzateke, kooperazio jurisdikzioanalaren eta uniformitatearen aurka hain zuzen ere.

Judizio aurreko prozeduraren xede eta izaera errespetatu behar horrek “organo jurisdikzional” kontzeptuaren nozio komunitario bat eratzea ekarri du³⁴. Nozio hau autonomoa da eta kontutan hartuko da judizio aurreko prozeduraren efektuetarako. Europako Justizia Auzitegiak ordenamendu nazionalean organo jurisdikzionalak emandako adiera errespetatzen du³⁵ baina definizio hori hedatu egin du barne ordenamenduaren arabera organo jurisdikzional ez direnak ere txertatuz. Horrela, “organo jurisdikzional” kontzeptuari eduki komunitarioa eman zaio. Beste era batera esanda, Ruiz-Jarabo Colomer Abokatu Orokorrak 2001eko *De coster* kasuaren konklusioetan adierazi bezala:

³³ CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Noción de órgano jurisdiccional a los efectos de plantear una cuestión prejudicial». ALONSO GARCÍA, Ricardo eta UGARTEMENDIA ECEIZABARRENA, Juan Ignacio (zuzendariak). *La cuestión prejudicial europea*. European inklings (EUi) 4. zb. Oñati: HAEE-IVAP, 2014. 28.or.

³⁴ CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Juez nacional – Tribunal de Justicia...». Op. Cit., 572.or.

³⁵ CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Noción de órgano...». Op. Cit., 30.or.

«[...] *órgano jurisdiccional no es solo el que lo sea con arreglo al Derecho nacional, sino también el que lo deba ser con el fin de que no haya ningún sector del Derecho comunitario que pueda escapar al proceso armonizador*»³⁶

Beraz, “organo jurisdikzional” kontzeptuaren zehaztapena ez da soilik zuzenbide nazionalean oinarritzen, baizik eta judizio aurreko prozeduraren xedeak errespetatzen dituen nozio komunitario eta autonomo batean.

Organo jurisdikzionalaren nozio komunitarioaren funtsa organoaren funtzioan eta sistema juridiko nazionalean duen egoera juridikoan dago³⁷. Organo bati barne ordenamenduak ematen dion izendapenak bigarren mailako garrantzia du.

Justizia Auzitegiak bere jurisprudentzian jaso izan ditu, 267.artikuluari jarraiki organo jurisdikzional kontsideratzen diren organoek izan behar dituzten ezaugarriak. *De Coster* kasuan³⁸ “organo jurisdikzional” kalifikazioa zertan oinarritzen den adierazten du Auzitegiak:

«[...] *un conjunto de elementos, como son el origen legal del órgano, su permanencia, el carácter obligatorio de su jurisdicción, el carácter contradictorio del procedimiento, la aplicación por parte del órgano de normas jurídicas, así como su independencia [letra lodia gehitua]*»³⁹

Baina irizpide hauek ez dira erabat zehatzak eta guztiei ez zaie garrantzi bera ematen. Gainera, Justizia Auzitegiak malgutasunez erabiltzen ditu irizpideok. Azken finean, bere helburu nagusia judizio aurreko prozeduraren erabilera hedatzea, honen xedea errespetatzea eta ondorioz zuzenbide europarraren aplikazioa uniformizatzea da.

Judizio aurreko prozedura zuzenbide komunitarioaren aplikaziorako tresna bihurtzeak autonomia ekarri dio Justizia Auzitegiari. Partikularrei nahiz konpainiei judizio aurreko prozeduraren bitartez barne zuzenbideko arauak aurre egiteko aukera ematearekin, Justizia Auzitegiari berak nahiago dituen politikak jarraitzeko aukera ematen zaio. Horrela, autonomia irabazten du barne ordenamendu eta organoekiko.

³⁶ Dámazo RUIZ-JARABO COLOMER Abokatu Orokorraren konklusioak, 2001eko ekainaren 28an aurkeztua, *De Coster* kasuari dagozkionak (C-17/00). 29. paragrafoa.

³⁷ CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Noción de órgano...». Op. Cit., 29.or.

³⁸ EBJAren Epaia, 2001eko azaroaren 19koa, *François De Coster v Collège de bourgmestre et échevins de Watermael-Boitsfort* (C-17/00)

³⁹ *Ibid.*, 10. paragrafoa.

Aipatutako ezaugarri horiei eta osatzen duten nozio komunitarioari jarraituz, organo juridikzional kontsideratu izan dira judizio aurreko kuestioen planteamenduaren efektuetarako:

1. Alde batetik, Estatu kideei dagozkien ordenamendu juridikoen arabera organo juridikzional kontsideratzen diren organoak, bai lurralde Europarrean kokatutakoak baita beren itsasoz haraindiko herrialde eta lurraldeetan kokatutakoak ere. Adibidez: Papeete, Tahitiko “*Tribunal Administratif*”; Saint Denis, La Reunioneko “*Cour d’Appel*” eta Man Uharteko “*Deputy Bailiff’s Court*”.

Berdin du, kuestioen planteamendua organo juridikzionalaren osoko bilkurak edo areto batek egin. Berdin izango du baita ere, autoen kasuan hertsiki funtzio juridikzionalak ez betetzea baldin eta prozedura egintza juridikzional baten bidez amaitzen bada. Honen adibide lirateke *Gemeente Almelo* kasua⁴⁰ (organo batek laudo arbitral baten aurkako errekurtsio bat ebazten du), *Pretore di Salò* kasua⁴¹ (organo batek judikaturako eta ministerio fiskaleko funtzioak bereganatzen ditu).

Aldiz, ez dira multzo honetan sartuko borondatezko juridikzioko prozedura bat ebazten duten organoak edo Jabetza Erregistroaren ardura duten organoak, izan ere, hauen zeregina administratiboa kontsideratzen da⁴².

2. Beste aldetik, aipatutakoez gain, organo juridikzional kontsideratuko dira, nozio komunitarioaren ezaugarri eta elementuak betetzen dituzten organoak, nahiz eta berez, barne ordenamenduan, ez izan kalifikazio edo kontsiderazio hori. Horren adibide bezala hainbat kasu ditugu, besteak beste: Herbeheretako eta Italiako Estatu Kontseiluak (*Raad van State* eta *Consiglio di Stato* hurrenez hurren), Herbeheretako Obra Publikoen Kontratuen Esleipenerako Batzorde Lokala (*Arrondissementsrechtbank*), Finlandiako Jarduera Landatarretako Baliabideen Batzordea (*Maaseutuelinkeinojen Valituslautakunta*), Austriako Komunikazioen Batzorde Nazionala (*Bundeskommunikationssenat*), Erresuma

⁴⁰ EBJaren Epaia, 1994ko apirilaren 27koa, *Gemeente Almelo eta besteak v Energiebedrijf IJsselmij NV* (C-393/92)

⁴¹ EBJaren Epaia, 1987ko ekainiaren 11koa, *Pretore di Salò v X* (14/86)


⁴² CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Juez nacional – Tribunal de Justicia...». Op. Cit., 572.or.

Batuko Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetza (National Insurance Commissioner) etab.⁴³

Kasu hauetan, organoa ez da kontsideratzen organo jurisdikzional barne ordenamenduaren arabera, baina kontzeptuaren nozio komunitario zabalaren arabera hala kontsideratuko dira judizio aurreko kuestioen prozeduraren aplikazioan.

Aldiz, badira organo batzuk zeinak ez diren kontsideratuko organo jurisdikzional EBFT 267. artikuluaaren efektuetarako, izan ere, ez dituzte betetzen aipatutako ezaugarriak. Honen adibide dira: Belgikako *Collège d'arbitrage de la Commission de Litiges Voyages* (zuzenbide pribatuko arbitroa), Italiako *Procura della Repubblica*, Greziako *Epitropi Antagonismou* (Konpetentziako Batzordea) etab.⁴⁴

Aipatutakoa argiago adierazteko hona hemen eskema bat:



1 → Eremu honetan 1) puntuan aipatutako organoak egongo liriteke. Organo hauek organo jurisdikzional kontsideratzen dira barne ordenamenduan.

2 → Eremu honetan 2) puntuan aipatutako organoak egongo liriteke. Organo hauek barne ordenamenduaren arabera ez dira organo jurisdikzional baina adiera

⁴³ *Ibíd.*, 573.or.

⁴⁴ *Loc. Cit.*

komunitarioaren ezaugarriak betetzen dituzte eta hala kontsideratzen dira EBFT 267. artikuluaaren efektuetarako.

3 → Eremu honetan egongo lirateke organo jurisdikzional kontsideratzen ez diren organoak kalifikazio hori izateko ezaugarriak betetzen ez dituztelako.

Laburbilduz beraz, Justizia Auzitegiak “organo jurisdikzional” kontzeptuaren adiera edo nozio autonomo eta komunitario bat garatu du EBFT 267. artikuluaaren efektuetarako. Nozio autonomo eta komunitario honen sorreraren arrazoia judizio aurreko prozeduraren izaera eta xedea errespetatzea da. Adiera komunitarioak, bere barne hartzen du ordenamendu nazionalak egindako organo jurisdikzional kontzeptuaren zehaztapena. Hau da, Estatu kideetan jurisdikzional kontsideratzen diren organoen kalifikazioa errespetatu da. Baina aldi berean, nozio komunitarioak nozio nazionala hedatu du judizio aurreko kuestioen planteamenduari dagokionez. Ondorioz, nozio komunitarioan barne ordenamenduaren arabera jurisdikzionalak ez diren organoak ere jasotzen dira.

2.2.2. NOZIO KOMUNITARIOAREN GEHIEGIZKO HEDAPENA

Esan bezala, organo jurisdikzionalaren nozio komunitario eta autonomo hori, alde batetik, judizio aurreko prozeduraren izaera eta xedea errespetatzeak eta bestetik prozedura eraginkorra izan nahiak justifikatzen dute⁴⁵.

Baina Justizia Auzitegiak ez du erabat nozio hori zehaztu, baizik eta irizpide batzuk eman ditu soilik. *De Coster* kasuan Ruiz-Jarabo Colomer abokatu orokorrak esan bezala horren ondorioa zera da:

«[...] una jurisprudencia flexible en exceso y carente de la necesaria coherencia, con el déficit de seguridad jurídica que comporta. Las profundas contradicciones que se observan entre las soluciones propuestas por los abogados generales en sus conclusiones y las adoptadas por el Tribunal de Justicia en sus sentencias ilustran la falta de señalización en el camino, con el consiguiente riesgo de extravío. Es una jurisprudencia casuística, muy elástica y poco científica, con unos contornos tan difusos que admitiría una cuestión

⁴⁵ CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Noción de órgano...». Op. Cit., 33.or.

prejudicial suscitada por Sancho Panza como gobernador de la ínsula de Barataria.»⁴⁶

Nozioa bera zabaldu nahiaren eta Justizia Auzitegiaren zehaztopen faltaren ondorio da beraz, nozioaren erabilera malgua. Orduan malgutasun horren neurria bihurtzen da arazo. Hau da, zenbaterainoko malgutasunarekin erabili behar da nozio hau? Zenbateraino hedatu behar da?

Organo jurisdikzionalaren nozioa malgutasunez erabiltzearen ondorioz barne ordenamenduetan jurisdikzional kontsideratzen ez diren organoei judizio aurreko prozedura erabiltzeko ahalmena aitortzen zaie. Honekin, judizio aurreko prozeduraren erabilera indartzen da eta Zuzenbide komunitarioaren aplikazio uniformeak sustatzen da⁴⁷. Baina bestalde, Ruiz-Jarabo Colomer Abokatu Orokorrek adierazi bezala gehiegizko malgutasunak segurtasun juridikoko arazoak sortzen ditu. *De Coster* kasuari dagozkion konklusioetan adierazi zuenez:

«[...] las reglas del juego deben ser precisas en una Comunidad de Derecho. Los jueces nacionales y los ciudadanos comunitario tienen derecho a saber, de antemano, quiénes pueden ser considerados órganos jurisdiccionales a los efectos del artículo 234 CE.»⁴⁸

Organo jurisdikzionalaren nozioaren malgutasunaren irismena beraz ez dago zehaztuta eta gatazkak sortzen ditu.

Organo jurisdikzionalaren nozioaren gehiegizko malgutasunaren erakusgarri bezala 1997ko *Parfums Christian Dior* kasua dugu⁴⁹. Kasu honetan nazioarteko organo judizialen judizio aurreko kuestioak planteatzeko ahalmena eztabaidatu zen. Parfums Christian Dior SA eta Parfums Christian Dior BV, Evora BVren aurkako kasua Herbeheretako Auzitegi Gorenaren (*Hoge Raad*) esku zegoen. Auzitegi honek zuen zalantza honakoa zen: zein organok planteatu behar du judizio aurreko kuestioa barne kasua ebazteko beharrezkoa den zuzenbide komunitarioaren inguruan? Herbeheretako Auzitegi Gorenak berak edo Beneluxeko Justizia Auzitegiak?

⁴⁶ Dámaso RUIZ-JARABO COLOMER. Konklusioak cit., 14. paragrafoa.

⁴⁷ CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Noción de órgano...». Op. Cit., 34.or.

⁴⁸ Dámaso RUIZ-JARABO COLOMER. Konklusioak cit., 61. paragrafoa.

⁴⁹ EBJAren Epaia, 1997ko azaroaren 4koa, *Parfums Christian Dior SA eta Parfums Christian Dior BV v Evora BV* (C-337/95)

Beneluxeko Justizia Auzitegia 1965an sortutako nazioarteko organoa izanik, ondorioztatzen den galdera zera da: Nazioarteko organo judizialak organo jurisdikzionalaren nozio komunitarioaren barne sartzen al dira? Hau da, nazioarteko organo judizialek judizio aurreko kuestioak planteatzeko ahalmena izan al dezakete?

Egoera honen aurrean Justizia Auzitegiak baiezkotzea erantzuna eman zuen, hori arrazoitzeko honakoa adieraziz:

«En efecto, no existe ningún motivo válido que justifique que tal órgano jurisdiccional común a varios Estados miembros no pueda plantear cuestiones prejudiciales al Tribunal de Justicia, tal como lo hacen los órganos jurisdiccionales de cada uno de dichos Estados miembros.»

A este respecto, es preciso prestar especial atención al hecho de que el Tribunal del Benelux tiene por misión garantizar la uniformidad en la aplicación de las normas jurídicas comunes a los tres Estados del Benelux, y que el procedimiento que se desarrolla ante él tiene la naturaleza de un incidente en los procesos pendientes ante los órganos jurisdiccionales nacionales, a cuyo término se establece la interpretación definitiva de las normas jurídicas comunes al Benelux.

El hecho de que, cuando tenga que interpretar normas comunitarias en el desempeño de su misión, un órgano jurisdiccional como el Tribunal del Benelux pueda recurrir al procedimiento previsto por el artículo 177 del Tratado se ajusta, por tanto, al objetivo de dicha disposición, que es el de velar por la interpretación uniforme del Derecho comunitario.»⁵⁰

Organo jurisdikzionalaren nozio komunitarioaren hedakuntzaren adibidetzat jo daiteke kasu hau. Doktrinaren zati baten arabera ordea, Justizia Auzitegiak emandako arrazoiketa eztabaidagarria da, nahiz eta bere helburua zilegi izan. Erabaki honek EBFTn hitzez hitz adierazitakoa ez du guztiz errespetatzen eta beraz, behar beharrezkoa litzateke modu egokian justifikatzea⁵¹.

⁵⁰ *Ibíd.*, 21, 22 eta 23. paragrafoak.

⁵¹ CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Noción de órgano...». *Op. Cit.*, 35.or.

Egia da ordea, azken urteotan Justizia Auzitegiak kontrol gehiago ezartzeko pausoak hartzen ari dela. Horren erakusgarri dugu 2011ko *Miles* kasua⁵². Paul Miles Eskola Europarretako batera lekualdatutako Erresuma batuko irakasle bat zen. 136 lankideekin batera errekurtsio bat aurkeztu zuen Eskola Europarren Errekurtsio Batzordearen aurrean. Kasuaren edukia irakasleen soldataren ingurukoa zen, Erresuma Batuko liberaren balio-galeraren ondoren. Kasu honetan zalantza zegoen ea Eskola Europarraren Batzordeak judizio aurreko kuestioak planteatu ahal zituen edo ez. Justizia Auzitegiak ezezko erantzuna eman zuen, horrela nazioarteko izaera duten organoen judizio aurreko prozedurako parte hartzea mugatuz.

Hau guztia ikusirik, ondorioztatu daiteke jurisprudentzia komunitarioan oraindik sistematizazio falta dagoela organo jurisdikzionalen nozio komunitarioaren inguruan⁵³.

2.3. KUESTIOEN IGORPENA EGITEAREN ERABAKIA

Behin judizio aurreko kuestioen objektua eta organo jurisdikzionalen nozio komunitarioa ikusita, hurrengo pausoa igorpena egitearen erabakia bera aztertzea da.

Hasteko, aipatu beharra dago kuestioak planteatzeko eskunduntza organo jurisdikzional nazionalena dela eta eskuduntza hori baztertzaila edo eskusiboa dela⁵⁴. Alde batetik, aurreko zatian adierazi bezala, nozio komunitarioaren arabera organo jurisdikzional nazional kontsideratzen ez diren organoak baztertzen dira. Bestetik, barne prozesuko alderdiak baztertzen dira. Alderdiek epaileari jakinarazi ahal diote judizio aurreko kuestioak planteatzeko aukera edo beharra dagoela edo arau komunitario aplikagarriaren interpretazioa edo baliozkotasuna zalantzan jartzen dutela. Baina Justizia Auzitegira jotzeko erabakia epailearena da guztiz. Barne epaileak ez du zertan arrazoitu beharko alderdien eskari horri uko egitea, eta eskaririk egon ezta ere ofizioz jardun ahalko du⁵⁵.

⁵² EBJAren Epaia, 2011ko ekainaren 14koa, *Paul Miles eta besteak v Eskola Europarrak* (C-196/09)

⁵³ CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Juez nacional – Tribunal de Justicia...». Op. Cit., 575.or.

⁵⁴ MARTÍNEZ CAPDEVILLA, Carmen. «La decisión de plantear la cuestión prejudicial y su control por el TJUE (Un diálogo iniciado por el juez a quo y presidido por la utilidad para este, aunque no solo...)». ALONSO GARCÍA, Ricardo eta UGARTEMENDIA ECEIZABARRENA, Juan Ignacio (zuzendariak). *La cuestión prejudicial europea*. European inklings (EUi) 4. zb. Oñati: HAEE-IVAP, 2014. 62.or.

⁵⁵ Loc. Cit.

Bestalde, Justizia Auzitegiak berak ere ez du zalantzan jarriko auzitegi nazionalaren erabakia (kuestioak igortzearena), izan ere, esan bezala, kuestioen erantzuna barne kasua ebazteko beharrezkoa den edo ez erabakitzea epaile nazionalaren ardura da soilik⁵⁶.

2.3.1. KUESTIOAK IGORTZEKO AHALMENA DUTEN ORGANOAK ETA OBLIGAZIOA DUTENAK


Baina zerren arabera hartzen du epaile nazionalak kuestioak igortzeko erabakia? Zein auzitegik dute kuestioen igorpena egiteko ahalmena? Eta zeinek obligazioa?

Galdera hauei erantzuteko EBFTko 267. artikuluko 2 eta 3 puntuetara jo behar dugu. Laburki azalduz, artikuluko honek bi egoera bereizten ditu: organo jurisdikzionalak judizio aurreko kuestioak planteatzeko ahalmena duen egoera (EBFT 267.2.art.) eta organo jurisdikzionalak kuestioak planteatzeko obligazioa duen egoera (EBFT 267.3.art.). Bereizketa hori egiteko irizpidea errekurtsioak tartteratzeko aukera da. Hau da, organo jurisdikzional nazionalak emandako ebazpenaren aurka errekurtsorik ezin bada tartteratu organo horrek obligazioa izango du judizio aurreko kuestioak planteatzeko. Horretaz gain ordea kuestioa igortzeko bada beste betekizun bat: Justizia Auzitegiaren zuzenbide komunitarioaren interpretazio edo baliozkotasunari buruzko erantzuna beharrezkoa izatea barne kasuan ebazpena emateko⁵⁷.

⁵⁶ WEATHERILL, Stephen. *Cases and material son EU Law*. 7. edizioa. New York: Oxford University Press, 2006. 186.or.

⁵⁷ CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Juez nacional – Tribunal de Justicia...». Op. Cit., 580.or.

Arau edo irizpide orokor horiei ordea ñabardurak gehitu behar zaizkie. Azalpenak errazago jarraitzeko honako eskema lagungarri suertatu daiteke:



2.3.1.1. Ebazpenaren aurka errekurtsua tarteratu ahal da?

Judizio aurreko kuestioak igortzearen erabakia hartzeko prozesuan, lehenik eta behin, kontuan hartu behar da ea barne kasuko ebazpenaren aurka errekurtsorik tarteratu ahal den edo ez. Horren arabera bereiziko dira oro har, kuestioak planteatzera derrigortuta dauden organoak eta kuestioak planteatzeko ahalmena duten organoak. Beraz, 267. artikuluko bereizketa egiteko irizpidea ez da barneko hierarkia jurisdikzionala baizik eta

barneko erabakiaren behin betiko izaera⁵⁸. Errekurtsoa tarteratzeko aukera badago, oro har, organo jurisdikzional nazionala ez da derrigortuta egongo kuestioen igorpena egitera. Aldiz, errekurtsoa tarteratzerik ez badago, organoak kuestioak igorri beharko ditu derrigorrez.

Zehaztu beharra dago, kontuan hartzen dena barne ebazpenaren aurka **kasu konkretu horretan** errekurtsoak tarteratzeko aukerarik badagoen edo ez dela. Alegia, nahiz eta organo jakin baten ebazpenak normalean aurkatu ahal izan, judizio aurreko kuestioen jatorri den kasu konkretuan errekurtsoak tarteratu daitezkeen edo ez aztertu behar da⁵⁹. *Costa v ENEL* kasuan⁶⁰ judizio aurreko kuestioak igorri zituen organoaren ebazpenen aurka errekurtsoak tarteratu ahal ziren zenbait kasutan. Baina kasu konkretu horretan gataz0kako kopurua baxua zela eta, ezin zen ebazpena aurkaratu. Hori dela eta, Justizia Auzitegiak barne ebazpenaren kontra errekurtsorik egon ez balitz bezala tratatu zuen barne organoa, kuestioen planteamendua derrigorrezkotzat kontsideratuz. Honela adierazi zuen Justizia Auzitegiak:

«Considerando, no obstante, que a tenor de dicho artículo, los órganos jurisdiccionales nacionales cuyas decisiones no sean susceptibles de ulterior recurso judicial de Derecho interno, como ocurre en este caso, están obligados a someter al Tribunal de Justicia una cuestión prejudicial sobre «la interpretación del Tratado» cuando se suscite una cuestión de este tipo ante ellos;»⁶¹

Bestalde, “organo jurisdikzional” kontzeptuarekin gertatzen den bezala 267. artikuluan aipatutako “errekurtso” kontzeptuaren inguruan zehaztaper batzuk egiten dira nozio komunitario bat sortuz.

Adiera edo nozio komunitario horrek ez du kontuan hartzen errekurtsoari nazio mailan ematen zaion izendapena. Ezta ere ez du errespetatzen ohiko edo ezohiko errekurtsoen artean barne zuzenbidean egiten den bereizketa. Horrez gain, errekurtso horrek baliagarria izan behar du beheragoko mailako organoak egindako zuzenbide komunitarioaren aplikazioa aztertzeko.

⁵⁸ *Ibíd.*, 578.or.

⁵⁹ CRAIG, Paul eta DE BÚRCA, Gráinne. *EU Law: Text, Cases and Materials*. 5. edizioa. New York: Oxford University Press, 2011.

⁶⁰ EBJAren Epaia, 1964ko uztailaren 15ekoa, *Flaminio Costa v ENEL* (6/64).

⁶¹ *Ibíd.*, 104.or.

Gainera, errekurtsio horrek fondoari buruzko behin betiko ebazpen baten aurka joan behar du. Izan ere, kasu horretan bakarrik izango du eragina ebazpenak zuzenbide komunitarioaren aplikazio uniformearen. Efektu hori ez da ematen arazo prozesalean. Ondorioz, arazo prozesalak ebazten dituzten ebazpenen aurkako errekurtsioak ez dira kontsideratuko 267. artikuluaaren efektuetarako. Baina, ez dira aintzat hartuko fondoaren inguruan behin behineko erabakiak hartzen dituzten prozedurak⁶².

EBFTko 267. artikuluko errekurtsioa tarteratzeko aukera faltaren betekizunak eta “errekurtsio” kontzeptuari ematen zaion nozioa kontuan izanda honakoa ondorioztatu daiteke:

Espainiaren kasuan, orokorrean jurisdikzio batek ez du kuestioak planteatzeko obligaziorik izango bere ebazpenen aurka ohiko apelazio errekurtsio edo ezohiko kasazioko errekurtsio bat tarteratu badaiteke⁶³.

Bestalde, errekurtsio noziotik at geratuko dira ohiko errekurtsio ez itzulgarriak (“*recursos ordinarios no devolutivos*”, errekurtsioaren tramitazioa eta erresoluzioa ebazpena eman zuen organoari dagokionean), arau-urratze prozesalengatiko ezohiko errekurtsioak (errekurtsio honekin ez baita aztertuko gatazkaren fondoa), zenbait ezohiko errekurtsio (besteak beste doktrinaren berrikuspen edo bateraketarako kasazio errekurtsioak), Auzitegi Konstituzionalaren aurreko errekurtsioak, eta partikularren esku dauden Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren aurreko errekurtsioak (aipatutako azken hirurak jada irmoak diren epaiak aurkajartzera bideratuta baitaude)⁶⁴.

Hau guztia kontuan izanda, badaude zenbait jurisdikzio zeinak beren izaeragatik judizio aurreko kuestioak igortzera behartuta dauden. Espainian Auzitegi Konstituzionalak eta Auzitegi Gorenak fondoari buruz behin behineko ebazpena ematen dutenean obligatuta egongo dira judizio aurreko kuestioa planteatzera⁶⁵.

⁶² CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Juez nacional – Tribunal de Justicia...». Op. Cit., 579.orr.

⁶³ *Ibíd.*, 578.orr.

⁶⁴ *Ibíd.*, 579.orr.

⁶⁵ *Ibíd.*, 580.orr.

2.3.1.2. Beharrezkoa al da kuestioak igortzea kasua ebazteko?

Kuestio jakin bat igortzeko obligazioa eta ahalmena duten organoak beren ebazpenen aurka errekurtsua tarteratzeko aukeraren arabera bereizten dira. Baina ez da kuestioak planteatzeko erabakia hartzea dakarren irizpide bakarra.

Izan ere, igorpenerako obligazio hori ez da automatikoa. Errekurtsuak tarteratzeko aukeraren arabera bereizitako bi organo motek beste betekizun bat izan behar dute kontuan kuestioen igorpena gauzatzeko: judizio aurreko ebazpen baten beharra egotea barne kasua ebazteko.

Beraz, auzitegiek aztertu beharko dute ea igorpena egitea beharrezkoa den edo ez (*juicio de relevancia* deritzona). Judizio aurreko kuestio bat beharrezkoa kontsideratuko da bere erantzunak barne kasuko emaitzan eragina izango badu⁶⁶.

Aldiz, ez da beharrezko kontsideratuko kuestioa ez denean egokia kontsideratzen. Adibidez, ez litzateke egokia zuzenbide komunitarioa aplikaezina bada, hau da, kasu hori barne zuzenbidean edo nazioarteko zuzenbidean oinarriturik ebatzi behar bada. Baita ere, ez da egokia kontsideratuko, kuestioaren objektua ez denean arau komunitario baten interpretazioa edo baliozkotasuna, baizik eta barneko edota nazioarteko arau batena⁶⁷.

Gainera, kuestioa planteatzea beharrezkotzat jotzeko kasuari aplikagarri diren arau komunitarioen inguruan zalantzak egon behar dute (interpretaziozkoak nahiz baliozkotasunezkoak). Zalantzarik ez da egongo kuestioaren erantzuna argi eta garbi ikus badaiteke arau komunitarioetan (*acte clair* doktrina) edo jada jurisprudentzia argia badago gai horren inguruan (*acte éclairé* doktrina). Puntu hauek xehetasun gehiagorekin azalduko dira 2.3.2. zatian.

Laburbilduz, judizio aurreko kuestioa planteatzeko erabakia hartzeko, kuestio hori planteatzea beharrezkoa izan behar du. Irizpide hau kuestioa planteatzeko obligazioa duten (beren ebazpenen aurka errekurtsorik ez dagoelako) eta ahalmena duten (beren ebazpenen aurka errekurtsuak daudelako) organoek errespetatu behar dute.

⁶⁶ Loc. Cit.

⁶⁷ *Ibíd.*, 582.or.

Kuestioen igorpena egiteko obligazioa duten organoen kasuan beharrezkotasun hori hautematen bada, derrigorrezkoa izango da kuestioak igortzea⁶⁸. Egia da ordea, beharrezkotasun honek badituela bere salbuespenak (2.3.2 zatian azalduko dira).

Kuestioen igorpena egiteko ahalmena duten organoen kasuan ordea, bereizketa batzuk egin behar dira. Beharrezkotasuna hautematen bada kontuan hartu beharko da ea arau komunitarioari buruzko zalantza interpretaziozkoa edo baliozkotasunezkoa den.

Interpretaziozkoa bada, organoak erabaki ahalko du kuestioak planteatu edo ez. Judizio aurreko kuestioa beharrezkoa kontsideratzen badute ere ez daude obligatuak igorpena egitera⁶⁹.

Baina zalantza arau komunitarioaren baliozkotasunaren ingurukoa bada, organo judiziala obligatuta dago kuestioa igortzera, nahiz eta bere ebazpenen aurka errekursoak tarteratzeko aukera egon⁷⁰.

Honen inguruan ebatzi zuen Justizia Auzitegiak 1987ko *Foto-Frost* epaian⁷¹. Kasu honen bidez Justizia Auzitegiak adierazi zuen erakunde komunitarioen egintzen baliozkotasunaren inguruan ebazteko monopolioa zuela⁷². Honi jarraiki, Justizia Auzitegiak Tratatuak ezarritako igorpen obligazioari gehikuntza bat egin zion: berez kuestioak igortzera obligatuta ez dauden organoek kuestioak igorri beharko dituzte arau komunitarioen baliozkotasunaren inguruak badira⁷³. Horrela igorpenerako obligazioa baliozkotasun kuestio guztietara zabaltzen da berdin duelarik planteatzen duen organoaren izaera (ea bere ebazpenen aurka errekurtsorik tarteratu ahal den edo ez). Honela arrazoitu zuen Justizia Auzitegiak:

«Dando a los órganos jurisdiccionales nacionales cuyas decisiones sean susceptibles de recurso judicial de Derecho interno la facultad de plantear al Tribunal de Justicia cuestiones prejudiciales para interpretar o apreciar la validez, el artículo 177 no ha solucionado la cuestión de las facultades de estos

⁶⁸ HUELIN MARTÍNEZ DE VELASCO, Joaquín. «La cuestión prejudicial europea». ALONSO GARCÍA, Ricardo eta UGARTEMENDIA ECEIZABARRENA, Juan Ignacio (zuzendariak). *La cuestión prejudicial europea*. European inklings (EUi) 4. zb. Oñati: HAEE-IVAP, 2014. 48.or.

⁶⁹ *Ibíd.*, 46 eta 47.orr.

⁷⁰ DE LA MARE, Thomas eta DONNELLY, Catherine. *Op. Cit.*, 373.or.

⁷¹ EBJAren Epaia, 1987ko urriaren 22koa, *Foto-frost v Hauptzollamt Lübeck-Ost* (314/85)

⁷² *Ibíd.*, 17. paragrafoa.

⁷³ DE LA MARE, Thomas eta DONNELLY, Catherine. *Op. Cit.*, 373.or.

órganos jurisdiccionales para declarar ellos mismos la invalidez de los actos de las instituciones comunitarias.

Estos órganos jurisdiccionales pueden examinar la validez de un acto comunitario y, si no encuentran fundados los motivos de invalidez que las partes alegan ante ellos, desestimarlos concluyendo que el acto es plenamente, válido. En efecto, al actuar de este modo, no enjuician la existencia del acto comunitario.

En cambio, no tienen la facultad de declarar inválidos los actos de las instituciones comunitarias.

[...]

Dado que el artículo 173 atribuye competencia exclusiva al Tribunal de Justicia para anular un acto de una institución comunitaria, la coherencia del sistema exige que la facultad de declarar la invalidez del mismo acto, si se plantea ante un órgano jurisdiccional nacional, esté reservada asimismo al Tribunal de Justicia.

[...]

Procede pues responder a la primera cuestión que los órganos jurisdiccionales nacionales no son competentes para declarar por sí mismos la invalidez de los actos de las instituciones comunitarias.»⁷⁴

Erabaki hau bi puntutan oinarritu zen:

Alde batetik, arrazoitu zen judizio aurreko prozeduraren helburua Zuzenbide komunitarioaren aplikazio uniformea zela. Uniformitate hori zaintzea bereziki garrantzitsua da egintza komunitario baten baliozkotasunari dagokionez. Organo jurisdikzional nazionalek egintzen baliozkotasunari buruz posizio desberdinak izatea arriskutsua izan daiteke ordenamendu juridiko komunitarioarentzat⁷⁵.

⁷⁴ Foto-frost (314/85). Epai cit. 13, 14, 15, 17 eta 20. paragrafoak.

⁷⁵ Ibid., 15. paragrafoa.

Beste aldetik, epaian adierazi zen Justizia Auzitegia bera dagoela egintza komunitarioen baliozkotasunari ebazteko baldintza onenetan⁷⁶.

2.3.2. IGORTZEKO OBLIGAZIOAREN SALBUESPENAK

Aipatutako kuestioak igortzeko obligazioak ordean, bere salbuespenak ditu. Justizia Auzitegiak berak 2012ko “*Recomendaciones a los órganos jurisdiccionales nacionales, relativas al planteamiento de cuestiones prejudiciales*” dokumentuan⁷⁷ honakoa adierazi zuen:

*«No obstante, los órganos jurisdiccionales nacionales cuyas decisiones no sean susceptibles de ulterior recurso judicial de Derecho interno están obligados a someter al Tribunal de Justicia tales peticiones, salvo cuando ya exista jurisprudencia en la materia (y las eventuales diferencias de contexto no planteen dudas reales sobre la posibilidad de aplicar al caso de autos la jurisprudencia existente) o cuando la manera correcta de interpretar la norma jurídica de que se trate sea de todo punto evidente.»*⁷⁸

Beraz, kuestioak igortzeko obligaziorik ez da egongo:

- Aurretik kasu analogo baten inguruan jurisprudentzia dagoenean. Salbuespen hau “*acte éclairé*” doktrina bezala ezagutzen da.
- Kuestioaren objektu den arau judirikoa interpretatzeko era egokia ageri-agerikoa denean. Salbuespen honi berriz, “*acte clair*” doktrina deritzo.

2.3.2.1. *Acte éclairé* doktrina

Acte éclairé doktrina *Da Costa en Schaake* kasuan⁷⁹ agertu zen lehen aldiz. Kasu hori eta *Van Gend & Loos* kasua⁸⁰ analogoak ziren eta planteatutako kuestioak ere

⁷⁶ *Ibíd.*, 18. paragrafoa

⁷⁷ EBJAren Gomendioak, 2012ko azaroaren 6koak, *Recomendaciones a los órganos jurisdiccionales nacionales, relativas al planteamiento de cuestiones prejudiciales* (EBAO 2012/C 338/01)

⁷⁸ *Ibíd.*, 12. paragrafoa.

⁷⁹ EBJAren Epaia, 1963ko martxoaren 27koa, *Da Costa en Schaake NV, Jacob Meijer NV, Hoechst-Holland NV v Nederlandse administratie der belastingen* (28/62, 29/62 eta 30/62 kasu pilatuak)

⁸⁰ EBJAren Epaia, 1963ko otsailaren 5koa, *NV Algemene Transport- en Expeditie Onderneming Van Gend & Loos v Nederlandse administratie der belastingen* (26/62)

berdinak ziren. Beraz, bazegoen jada aurretiazko jurisprudenzia eta Justizia Auzitegiak honela ebatzi zuen:

«Considerando que la Comisión, que comparece al amparo de lo dispuesto en el artículo 20 del Estatuto del Tribunal de Justicia CEE, alega que no hay lugar a admitir la petición por falta de objeto, pues las cuestiones sobre las que se pide una interpretación por el Tribunal de Justicia en el presente procedimiento se encuentran ya resueltas por la sentencia 26/62, de 5 de febrero de 1963, que se pronunció sobre cuestiones idénticas suscitadas en un asunto análogo; [letraldia gehitua]

[...]

que, si bien el último párrafo del artículo 177 obliga, sin restricción alguna, a los órganos jurisdiccionales nacionales cuyas decisiones no sean susceptibles de ulterior recurso judicial de Derecho interno, a someter al Tribunal toda cuestión de interpretación planteada ante los mismos, la doctrina interpretativa sentada por este Tribunal en virtud del artículo 177 puede, no obstante, privar a dicha obligación de su causa y vaciarla así de su contenido;

que ocurre así, en especial, cuando la cuestión planteada es materialmente idéntica a una que ya fue objeto anteriormente de una decisión con carácter prejudicial en un asunto análogo.»⁸¹

Beraz, adierazten denez, nahiz eta tratatuan azken instantziako organoei kuestioa planteatzeko obligazioa ezarri, Justizia Auzitegiaren kasu analogoen inguruko **judizio aurreko izaeradun** jurisprudenzian materialki berdina den kuestio bati erantzuna eman bazaio, obligazio horren **kausa desagertu** egingo da. Hau da, aurretiazko jurisprudenzia dagoenean kuestioak planteatzeko obligazioak ez du zentzurik, kausarik ez baitu. Ondorioz, horrelakoetan organoak, nahiz eta azken instantziakoa izan, ez du izango obligaziorik kuestioak igortzeko.

Acte éclairé doktrina berriz aipatu zen *CILFIT* kasuan⁸². Epai honetan *acte éclairé* doktrinaren eraginaren irismena zabaldu zen. *Da Costa en Schaake* kasuan adierazitakoari erreferentzia eginez honakoa adierazi zuen Justizia Auzitegiak:

⁸¹ *Da Costa* (28/62, 29/62 eta 30/62 kasu pilatuak). Epai cit., 368 eta 369.orr.

«El mismo efecto en lo que atañe a los límites de la obligación formulada por el párrafo tercero del artículo 177, puede derivar de la jurisprudencia ya asentada del Tribunal de Justicia que hubiera resuelto la cuestión de derecho de que se trata, cualquiera que sea la naturaleza de los procedimientos que dieron lugar a dicha jurisprudencia, incluso en defecto de una estricta identidad de las cuestiones debatidas [letra lodia gehitua].»⁸³

Beraz, *acte éclairé* doktrinaren oinarrian ez dira Justizia Auzitegiak judizio aurreko prozeduran emandako epaiak bakarrik egongo (*Da Costa en Schaake* kasuan adierazi bezala), baizik eta, edozein motatako prozeduraren emaitza diren epaiak.

Honi jarraiki, ezbetetzeagatiko errekurtsio bati erantzuna ematen dion epai bat, balio gabetze errekurtsio bati erantzuten dion bat eta baliozkotasunezko kuestioen inguruko judizio aurreko epaiak *acte éclairé* doktrinaren oinarri kontsideratuko dira. Hau da, prozedura horien emaitzek diren epaiak gerora antzeko kasuetan erabili ahalko den zuzenbide komunitarioaren interpretazioa eskaini dezakete. Prozesuaren jatorriko Estatu kideko organoek gain, gainontzeko Estatu kideetako organoek aurrekari bezala hartu ahalko dituzte kontutan⁸⁴.

Laburbilduz, esan daiteke organo jurisdikzional nazionalak ez dutela izango kuestioak igortzeko obligaziorik, antzeko kuestioren bat Justizia Auzitegiak aurretiaz ebatzitako kasu analogoren batean erantzun bada, alegia aurrekari bat badago. Berdin izango du, aurretiazko ebazpen hori zein prozesuren emaitza den.

Kasu horietan orduan, epaile nazionalak barne kasua ebatzi ahalko du kuestioak igorri gabe. Baina, honek ez du esan nahi, Justizia Auzitegiak aurretiaz ezarritako doktrina alde batera utzi dezakeenik, hori errespetatzeko betebeharra du epailea nazionalak⁸⁵.

Azpimarratzekoa da ordea, *acte éclairé* doktrinak kuestioak igortzeko obligazioa kendu soilik egiten duela, baina aldi berean ez diola oztoporik jartzen epaile nazionalari aipatutako salbuespenak ematen direnean ere kuestioak igortzeko⁸⁶. Epaile nazionalak

⁸² EBJAren Epaiak, 1982ko urriaren 6koa, *Srl CILFIT -likidazioan- eta beste 54 sozietate v Ministero della Sanità eta Lanificio di Gavardo SpA v Ministero della sanità* (283/81)

⁸³ *Ibid.*, 20. paragrafoa.

⁸⁴ ALONSO GARCÍA, Ricardo. *Sistema jurídico...* Op. Cit., 228.or.

⁸⁵ *Loc. Cit.*

⁸⁶ *CILFIT* (283/81). Epai cit. 15. Paragrafoa.

erabaki dezake kuestioak igortzea lagungarria izan daitekeela, bai aurretiazko doktrina horren inguruko zalantzak argitzeko, bai horren inguruko argumentu berriak gehitzeko, edo baita ere Justizia Auzitegiak bere iritzia berriz hausnartzera bultzatzeko⁸⁷.

2.3.2.2. *Acte clair* doktrina

Igortzeko obligazioaren bigarren salbuespena *acte clair* doktrina da. Doktrina honen jatorria zuzenbide administraibo frantsesean dago⁸⁸. Horren arabera, arau baten esanahia erabat argia bada interpretaziozko kuestiorik ez da egingo.

Printzipio hori Europar Batasunaren eremuan *CILFIT* kasuan⁸⁹ ezarri zen. Gerta daiteke epaile nazional batek pentsatzea erantzuna horren garbia dela ez dela beharrezkoa kuestioak planteatzea⁹⁰. Alegia, Zuzenbide komunitarioaren aplikazioa horren da garbia ez dagoela zalantzarik planteatutako kuestioaren inguruan. Beraz, doktrina honen arabera arrazoizko zalantza horren falta da kuestioa kausarik gabe lagatzen duena. Orduan, organo juridikzional nazioanalak, nahiz eta azken instantziakoa izan, ez du izango obligaziorik kuestioak igortzeko.

Justizia Auzitegiak honela adierazi zuen *CILFIT* kasuan:

«Finalmente, la correcta aplicación del Derecho comunitario puede imponerse con tal evidencia que no deje lugar a duda razonable alguna sobre la solución de la cuestión suscitada. Antes de concluir que se da tal situación, el órgano jurisdiccional nacional debe llegar a la convicción de que la misma evidencia se impondría igualmente a los órganos jurisdiccionales nacionales de los otros Estados miembros, así como al Tribunal de Justicia. Tan solo si estas condiciones se reúnen puede abstenerse el órgano jurisdiccional nacional de someter la cuestión al Tribunal de Justicia y resolver bajo su propia responsabilidad.»

⁸⁷ ALONSO GARCÍA, Ricardo. *Sistema jurídico...* Op. Cit., 228.or.

⁸⁸ STEINER, Josephine, WOODS, Lorna, TWIGG-FLESNER, Christian. *EU Law*. 9. edizioa. New York: Oxford University Press, 2006. 211.or.

⁸⁹ *CILFIT* (283/81). Epai cit.

⁹⁰ CRAIG, Paul 456.or.

*No obstante, la existencia de tal posibilidad debe ser apreciada en función de las características del Derecho comunitario y de las dificultades particulares que presenta su interpretación.»*⁹¹

Ikus daitekeenez ordea, *CILFIT* epaiak *acte clair* doktrinari baldintza batzuk jartzen dizkio:

Lehenik eta behin, organo jurisdikzional nazionalak ziur egon behar du berarentzat horren argia den erantzuna beste Estatu kideetako organo jurisdikzional nazioentzat eta Justizia Auzitegiarentzat ere argia dela⁹².

Bigarrenik, *CILFIT* epaian adierazten da kuestioak igortzeko obligazioaren salbuespena ulertuko dela zuzenbide komunitarioaren eta honen interpretazioak dakartzan zailtasunak kontuan izanda⁹³.

Honen harira, epaile nazionalak kontuan izan beharko du:

- 1) Zuzenbide komunitarioko testuak hizkuntza ezberdinetan daudela idatziak, eta guztiak dutela baliozkotasun bera. Ondorioz, horiek interpretatzeko aintzat hartu beharko da bertsio ezberdinen arteko konparaketa⁹⁴.
- 2) Hizkuntza desberdinetako bertsioak bat etortzen direnean ere, kontuan izan behar da Europar Batasuneko ordenamenduak terminologia propioa erabiltzen duela eta ondorioz, erabiltzen diren kontzeptu juridikoek baliteke ez izatea barne ordenamenduan duten eduki bera⁹⁵.
- 3) Europar Batasuneko ordenamenduko arauaen inguruabarrak izan behar dira kontuan, hau da, arauak ordenamenduko xedapen guztien arabera, arau horren xedeen arabera eta aplikazioko momentuen duten garapen graduaren arabera interpretatu behar dira⁹⁶.

Ikus daitekeenez azken instantzian ebazten duen organo jurisdikzional nazional bat kuestioen igorpena egiteko obligaziotik askatuta geratzeko baldintzak oso zorrotzak dira.

⁹¹ *CILFIT* (283/81). Epai cit. 16 eta 17. paragrafoak.

⁹² *Ibid.*, 16. paragrafoa.

⁹³ *Ibid.*, 17. paragrafoa.

⁹⁴ *Ibid.*, 18. paragrafoa.

⁹⁵ *Ibid.*, 19. paragrafoa.

⁹⁶ *Ibid.*, 20. paragrafoa.

Zorroztasun honen atzeko arrazoia zera izan daiteke, organo nazionalak judizio aurreko prozeduran parte hartzera bultzatzea, hau da, organo nazionalen eta Justizia Auzitegiaren arteko hartu-eman horretan partehartzea sustatzea⁹⁷.

Idea hau modu argian azaltzen dute Mancini eta Keeling-ek:

«The correct analysis of CILFIT was given by a Danish scholar, Professor Hjalte Rasmussen, who maintains that the judgement was based on an astute strategy of “give and take”. The Court, recognizing that it could not in any case coerce the national courts into accepting its jurisdiction, concedes something – a great deal in fact, nothing less than the right not to refer if the Community measure is clear – to the professional or national pride of the municipal judge, but then... restricts the circumstances of its own authority is preserved intact (or rather consolidated because it voluntarily divested itself of a part of its exclusive jurisdiction). The objective of the Court is plain: by granting supreme courts the power to do lawfully that which they could in any case do unlawfully, but by subjecting that power to stringent conditions, the court hoped to induce the supreme courts to use willingly the “mechanism for judicial cooperation” provided by the Treaty. The result is to eliminate sterile and damaging conflicts and to reduce the risk that Community law might be the subject of divergent interpretations.»⁹⁸

Baldintza zorrotz hauek organo jurisdikzional nazionalak kuestioak igortzeko obligaziotik askatzeari oztopoak jartzen dizkiote. Oztopo horiek organo horien diskrezionalitate maila mugatzera bideratutako neurri bezala ikus daitezke. Egia da baita ere, baldintza zorrotz horiek aurretiaz egoniko gehiegikerien erantzuna direla. Izan ere, azken instantziako zenbait organo nazionalak *acte clair* doktrinaren aplikazio lasai bat eginez eta kuestioak igortzeko obligazioa alde batera utziz, zuzenbide komunitarioaren interpretatzaile bihurtu izan dira, kontuan izan gabe beren ikuspuntua agian ez datorrela bat beste Estatu kideetako organoenarekin edo Justizia Auzitegiarenarekin. Hau arriskutsua izan daiteke zuzenbide komunitarioaren interpretazio eta aplikazio uniformearentzat⁹⁹.

⁹⁷ CRAIG, Paul eta DE BÚRCA, Gráinne. Op. Cit., 457.or.

⁹⁸ MANCINI, G.T., KEELING, D.T. «From CILFIT to ERT: The Constitutional Challenge facing the European Court». *Yearbook of European Law*. 1991. 4.or.

⁹⁹ HUELIN MARTÍNEZ DE VELASCO, Joaquín. Op. Cit., 50.or.

Baina noski, *CILFIT* epaian ezarritako printzipio edo baldintzen zorrotasunak kritikak ere jaso ditu gehiegizkoak ez ote diren zalantzan jarriz. Adibidez, *Wiener* kasuaren Abokatu Orokorraren konklusioetan¹⁰⁰ Jacobs Abokatu Orokorrak adierazi zuen hizkuntza ezberdinetako bertsio guztien konparaketa galdatzea neurritz kanpoko zela, exigentzia horrek neurritz kanpoko esfortzua suposatuko bailuke organo jurisdikzional nazionalentzat. Abokatu Orokorraren ustez, hizkuntza ezberdinetako bertsioak egoteak berak, arau komunitarioak literalki ez kontsideratzera bultzatu beharko luke, garrantzi gehiago eman ez inguruabarrei eta arauen xedeari¹⁰¹.

2.4. KUESTIOEN IGORPENA EGITEA

Judizio aurreko kuestioen igorpena egitearen erabakia zerren baitan hartzen den azaldu ondoren, igorpena bera aztertuko da jarraian.

Kuestioen igorpena judizio aurreko ebazpen eskaeraren bidez egiten da. Eskaera hau organo jurisdikzional nazionalak igortzen du zuzenean Justizia Auzitegira inolako bitartekaririk gabe (ez Justizia Ministerioa ezta Kanpo Harremanetarako Ministerioa ere)¹⁰².

Baina eskaera honen inguruan zalantzak sortzen dira: Noiz egin behar du eskaeraren igorpena epaile nazionalak? Zein forma izan behar du? Eta zein da bere edukia?

Lehenik eta behin aipatzeko da, estatu kideetako legislazio prozesalak erregulatzen duela judizio aurreko ebazpenaren eskaeran amaitzen den barne prozedura¹⁰³. Barne ordenamendua izango da beraz, kuestioen igorpena noiz eta nola egin behar den zehazten duena¹⁰⁴.

Gainera, aurreko zatian adierazi bezala kuestioen igorpena egiteko erabakia epaile nazionalaren eskuetan dago guztiz. Horri dagokio beraz, kuestioen zehaztapena eta formulazioa, baita barne prozesuko alderdien eskariz aritzen bada ere.

¹⁰⁰ F.G. JACOBS Abokatu Orokorraren konklusioak, 1997ko uztailaren 10ean aurkeztuak, *Wiener* kasuari dagozkionak (C-338/95).

¹⁰¹ *Ibíd.*, 65. paragrafoa.

¹⁰² MARTÍNEZ CAPDEVILLA, Carmen. *Op. Cit.*, 66.or.

¹⁰³ DÍEZ MORENO, Fernando. *Manual de derecho de la Unión Europea*. 5. Edizioa. Cizur Menor: Civitas, 2009. 371.or.

¹⁰⁴ MARTÍNEZ CAPDEVILLA, Carmen. *Op. Cit.*, 64.or.

Gai hauetan Estatu kideen autonomia dela eta, Justizia Auzitegiak gomendio soil batzuk plazaratu ditu EBFTko 267. artikuluko mekanismoa noiz eta nola egikaritu adieraziz.

2.4.1. KUESTIOEN IGORPENERAKO MOMENTUA

2012ko “*Recomendaciones a los órganos jurisdiccionales nacionales, relativas al planteamiento de cuestiones prejudiciales*” Jusitzia Auzitegiaren dokumentuan kuestioen igorpenerako momentu egokiaren inguruko gomendioak egin ziren¹⁰⁵.

Gomendio horien arabera, organo jurisdikzional nazionalak judizio aurreko erabakiaren eskaera egin dezake barne kasuko ebazpena emateko zuzenbide komunitarioren interpretazio edo baliozkotasunari buruzko erabaki bat beharrezkoa dela kontsideratzen duen momentuan.

Baina, adierazten da komenigarria dela kuestioak planteatzea behin gatazkako egitateak ezarrita daudenean eta zuzenbide nazionalako arazoak konponduta daudenean. Hau da, igorpena egiteko momentuan organo jurisdikzionala esparru juridiko eta faktikoa zehazteko baldintzetan egotea gomendatzen da. Horrela, Justizia Auzitegiak bere erabakirako garrantzitsuak izan daitezkeen egitatezko nahiz zuzenbidezko elementuen ezagutza izango du, Europar Batasuneko zuzenbidea gatazka horretan aplikagarria den edo ez zehazteko.

Gomendio hauen atzean dagoen arrazoia izan daiteke gerora bestelako zalantza batzuk sortu eta epaileak kuestio berriak planteatzea ekiditea¹⁰⁶.

Igorpena egin aurretik gomendatzen da epaile nazionalak alderdien arteko eztabaida bat gauzatzea alderdiek kuestioen planteamenduari buruzko iritzia azal dezaten. Kontuan izanik judizio aurreko ebazpenaren eskariak prozedura eteten duela eta epaia ematea atzeratzen duela, normala eta komenigarria da alderdiei aukera hori ematea¹⁰⁷.

¹⁰⁵ EBJAren Gomendioak (EBAO 2012/C 338/01) cit., 18 eta 19 paragrafoak.

¹⁰⁶ MARTÍNEZ CAPDEVILLA, Carmen. Op. Cit., 65.or.

¹⁰⁷ Loc. Cit.

2.4.2. IGORPENAREN FORMA ETA EDUKIA

Justizia Auzitegiak, bere gomendioetan, judizio aurreko ebazpenaren eskaeraren forma eta edukiari ere egiten die erreferentzia¹⁰⁸.

Organo jurisdikzional nazional baten judizio aurreko ebazpenaren eskaerak barne zuzenbidean gertakari prozesaletarako onartutako edozein forma izan dezake.

Eskaeraren dokumentu hori gerora Justizia Auzitegiaren aurreko prozeduran oinarri bezala erabiliko da eta beraz lagungarria izan daiteken erantzun bat emateko beharrezko diren elementuak jaso beharko ditu.

Gainera, dokumentu hori izango da gatazka nagusiko alderdiei eta interesatutako alderdiei (Justizia Auzitegiaren Estatutuko 23. artikuluan aipatzen direnei) jakinarazten zaien bakarra eta beste hizkuntzetara itzultzen den bakarra. Itzulpena dela eta, komenigarria da modu sinple, argi eta zehatzean idaztea.

Dokumentuak beharrezkoa den informazio guztia izan behar du, izan ere, bai Justizia Auzitegiak bai alderdi interesatuek oharrak aurkeztu ahal dituzte horren aurrean eta horregatik ezinbestekoa da esparru faktikoa eta juridikoa bere osotasunean adieraztea. Normalean hamar bat orrialde nahikoa izaten dira beharrezkoa den informazioa jasotzeko.

Edukiari dagokionez Justizia Auzitegiaren Prozedura Erregelamenduko 94. artikulua dio kuestioez gain bestelako elementu hauek izan beharko dituela eskaerak:

- Gatazkaren objektuaren eta jada frogatuak izan diren egitateen azalpen zehatz bat, edo gutxienez judizio aurreko kuestioen oinarri diren egitatezko supostuen azalpen bat.
- Kasu horretan aplikagarri diren xedapen nazionalen testua eta hala badagokio, baita jurisprudentzia ere.
- Zuzenbide komunitarioko xedapenen interpretazioaren nahiz baliozkotasunaren inguruko kuestioak planteatzearen arrazoiak eta xedapen horien eta aplikagarri diren xedapen nazionalen arteko harremana.

¹⁰⁸ EBJAren Gomendioak, (EBAO 2012/C 338/01) cit., 20-28 paragrafoak.

Erregelamenduko artikulua horretan adierazitakoaz gain Justizia Auzitegiak bere gomendioetan adierazi du barne kasuan aplikagarri diren zuzenbide komunitarioko xedapenak ere ahalik eta modu zehatzenean jaso behar direla eskaeran.

Beharrezkotzat jotzen bada, gatazkako alderdien argumentuen laburpen bat ere gehitu daiteke. Horrez gain, organo jurisdikzional nazionalak bere iritzia azaldu dezake igorritako kuestioei eman beharreko erantzunaren inguruan.

Eskaera dokumentuan judizio aurreko kuestioak modu errazean identifikatzeko moduan jaso behar dira, hasiera-hasieran edo amaieran.

Kuestioen idazketari buruz, gomendatzen da kuestioak beraien kasaka kontuan izanik ulergarriak izatea, hau da, ez egitea erreferentziarik eskaeraren oinarriari. Kuestioak zuzenbide europarreko xedapen espezifikoaren interpretaziora edo baliozkotasunera bideratuta egon behar dute. Gainera idazketak ahalbidetu behar du Justizia Auzitegiak erantzun abstraktu bat ematea, egitateen inguruko edo arauen aplikazioari buruzko erabakirik adierazi beharrik gabe.

2.5. KUESTIOEN IGORPENAREN EFEKTUAK ORGANO JURISDIKZIONAL NAZIONALEAN

Justizia Auzitegiaren aurrean judizio aurreko kuestioa planteatzeak prozesu nazionala eteten du behin behinekoz eta beroni amaiera ematen dion ebazpenik ezingo da eman Justizia Auzitegiak kuestioei dagokion ebazpena eman arte¹⁰⁹.

Honako ondorio hau arazoizkoa da kontuan hartuz ebazpen nazionala komunitarioan oinarriturik egongo dela. Hori bermatzeko modua da prozesu nazionalaren etetea.

Baina honek ez du esan nahi epaile nazionalaren jardura erabat gelditzen denik. Izan ere, epaileak kautela-neurriak hartu ahalko ditu etendurak irauten duen bitartean, batez ere baliozkotasunezko kuestioak planteatu direnean¹¹⁰.

¹⁰⁹ ALONSO GARCÍA, Ricardo. *Derecho de la Union Europea, textos y materiales*. 1. edizioa. Cizur Menor: Civitas, 2010. 189.or.

¹¹⁰ Loc. Cit.

Gerta daiteke arau nazional baten aplikazioa gelditzea ustez ordenamendu komunitarioaren aurka doalako. Posible da baita ere, baliozkotasun eztabaidagarria duen egintza komunitario bati jarraiki eginiko egintza nazionalaren aplikazioa etetea. Bestelako neurriak ere hartu daitezke, fidantza ekonomikoak ezartzea adibidez¹¹¹.

Aipautakoaz gain, kontuan izan behar da judizio aurreko kuestioa planteatze hutsak ez duela esan nahi horien inguruko ebazpena emango denik. Epaile komunitarioak eskuduntza du epaile nazionalak egiten dion igorpenean oinarrituta eta hori mantentzen den bitartean. 1978ko *Simmenthal* kasuan¹¹² honela adierazi zuen Justizia Auzitegiak:

«Considerando que debe recordarse a este respecto que, de conformidad con su práctica constante, este Tribunal de Justicia considera que la petición de decisión prejudicial, presentada en virtud del artículo 177, sigue estando sometida a su jurisdicción hasta que dicha petición no haya sido retirada por el órgano jurisdiccional de la que emana o haya sido anulada, previo recurso, por un órgano jurisdiccional superior;»¹¹³

Beraz, Justizia Auzitegiaren eskuduntza mantendu egingo da judizio aurreko eskaera igorri duen organoak berak hura atzera botatzen ez duen bitartean, edo, errekurtsio baten ondoren, goragoko organo batek ezeztatzen ez duen bitartean. Egindako igorpenaren oinarririk ezean Justizia Auzitegiak kasua bertan behera utziko du objektu faltagatik.

Judizio aurreko kuestioaren prozesuan parte hartzen dutenen ahalmenak mugatuak dira. Horiek ezin dute: a) epaile nazionalak planteatutako kuestioen edukia aldatu, b) kuestio berriak gehitu edo c) kuestioak aurkatu Justizia Auzitegiak objektu falta deklaratu dezan. Beraz, prozesuko subjektuek zuzenbide komunitarioaren interpretazioari nahiz baliozkotasunari buruzko beren ikuspuntua soilik adierazi ahal dute¹¹⁴.

Justizia Auzitegiak ez du ebazten epaiketa-kostuen inguruan. Gai horretaz organo jurisdikzional nazionala arduratuko da eta prozesu nagusiko alderdien kostuak barne prozesua ebazterakoan zehaztuko dira. Alderdietako batek ez baditu baliabide nahiko kostuei aurre egiteko, legislazio nazionalak ahalbidetzen duen heinean, organo

¹¹¹ CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Juez nacional – Tribunal de Justicia...». Op. Cit., 602.or.

¹¹² EBJAren Epaia, 1978ko martxoaren 9koa, *Amministrazione delle Finanze dello Stato v SpA Simmenthal* (106/77).

¹¹³ *Ibid.*, 10. paragrafoa.

¹¹⁴ CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Juez nacional – Tribunal de Justicia...». Op. Cit., 606.or.

jurisdikzional nazionalak laguntza bat eman ahalko dio Justizia Auzitegiaren aurreko jarduerak eragindako gastuak ordaintzeko. Maila nazionalean ez bada laguntzarik eskaintzen edo eskainitakoak ez baditu gastu guztiak estaltzen, Justizia Auzitegiak bere aldetik laguntza bat eman ahalko dio behar duen alderdiari¹¹⁵.

KONKLUSIOAK

Judizio aurreko prozeduraren bidez epaile nazionalak aukera du Justizia Auzitegiari zuzenbide komunitarioaren interpretazio nahiz baliozkotasunaren inguruko kuestioak igortzeko. Tratatuetan adierazten da zehazki zer izan daiteken kuestioen objektu. Hala ere, Justizia Auzitegiak modu malguan tratatu izan ditu irizpide horiek, nahiz eta zenbait kasutan jarrera murriztailea ere izan duen.

Kuestioen igorpena egiteko eskuduntza duten organoak “organo jurisdikzional nazionalak” direla adierazten da EBFTko 267. Artikuluan. Kontzeptu horri adiera edo nozio komunitarioa eman zaio Estatu kideen artean egon daitezkeen desberdintasunak saihestu nahian. Nozio komunitario hori nazionala baino zabalagoa da eta bere irismenaren mugak ez daude guztiz sistematizatuta.

Kuestioak igortzearen erabakia epaile nazionalak hartu dezake eskusiboki. Baina erabaki hori ez da beti guztiz librea izaten, izan ere, 267. artikulua zenbait organori igorpena egiteko obligazioa ezartzen die. Organo batzuek igortzeko eskubidea soilik duten bitartean beste batzuek obligazioa dute. Obligazio honek ordea, baditu bere salbuespenak: *acte éclairé* eta *acte clair* doktrinak. Hala ere, epaile nazionala igorpena egiteko obligaziotik askatzeko bete behar diren baldintzak nahiko zorrotzak dira.

Kuestioen igorpena egiteari dagozkioenez Justizi Auzitegiaren 2012ko «*Recomendaciones a los órganos jurisdiccionales nacionales relativas al planteamiento de cuestiones prejudiciales*» dokumentuan gomendio batzuk ematen dira igorpena egiteko momentu egokiari eta bere eduki eta formari buruz. Kuestioen igorpena egitearen ondorio nagusia, barne prozeduraren etendura da, nahiz eta epaile nazionalaren jarduera ez gelditu erabat.

¹¹⁵ ALONSO GARCÍA, Ricardo. *Derecho de la Unión...* Op. Cit., 189 eta 190.orr.

Zalantzarik gabe, judizio aurreko prozedura Europar Batasuneko sistema juridikoko mekanismo garrantzitsuenetarikoa da. Europar Batasuneko eta Estatu kideetako eta sistema legalen arteko uztarria bihurtu da, organo jurisdikzional nazionalak sistema jurisdikzional komunitarioan integratuz.

Gainera, zuzenbide komunitarioaren interpretazio eta aplikazio uniforme bermatzeko ezinbesteko tresna izan da. Bestelade, Europar Batasuneko zuzenbideari berari forma eman dio judizio aurreko epaien bidez printzipio garrantzitsuak ezarriz. Hau guztia, beti ere, Justizia Auzitegiaren eta organo jurisdikzional nazionalen arteko kooperazioan oinarrituz.

BIBLIOGRAFIA

LIBURUAK:

- ALONSO GARCÍA, Ricardo. «La cuestión prejudicial, piedra angular de la integración europea». ALONSO GARCÍA, Ricardo eta UGARTEMENDIA ECEIZABARRENA, Juan Ignacio (zuzendariak). *La cuestión prejudicial europea*. European inklings (EUi) 4. zb. Oñati: HAEE-IVAP, 2014. 9-27.orr.
- ALONSO GARCÍA, Ricardo. Derecho de la Union Europea, textos y materiales. 1. edizioa. Cizur Menor: Civitas, 2010.
- ALONSO GARCÍA, Ricardo. *Sistema jurídico de la Unión Europea*. 4. edizioa. Cizur Menor: Civitas, 2014.
- CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Juez nacional – Tribunal de Justicia: la cuestión prejudicial». BENEYTO PÉREZ, José María (zuz.), MAILLO GONZÁLEZ-ORÚS, Jerónimo (Koord.), BECERRIL ATIENZA, Belén (Koord.). *Tratado de derecho y políticas de la Unión Europea*. 5. liburukia: *Sistema jurisdiccional de la UE*. Madrid: Aranzadi, 2012. 549-624 orr.
- CIENFUEGOS MATEO, Manuel. «Noción de órgano jurisdiccional a los efectos de plantear una cuestión prejudicial». ALONSO GARCÍA, Ricardo eta UGARTEMENDIA ECEIZABARRENA, Juan Ignacio (zuzendariak). *La cuestión prejudicial europea*. European inklings (EUi) 4. zb. Oñati: HAEE-IVAP, 2014. 28-43.orr.
- CRAIG, Paul eta DE BÚRCA, Gráinne. *EU Law: Text, Cases and Materials*. 5. edizioa. New York: Oxford University Press, 2011.
- DE LA MARE, Thomas eta DONNELLY, Catherine. «Preliminary rulings and EU legal integration: Evolution and stasis». CRAIG, Paul eta DE BÚRCA, Gráinne. *The evolution of EU Law*. 2.edizioa. New York: Oxford University Press, 2011. 363-406 orr.
- DÍEZ MORENO, Fernando. *Manual de derecho de la Unión Europea*. 5. Edizioa. Cizur Menor: Civitas, 2009.
- GIRÓN LARRUCEA, José Antonio. *El sistema jurídico de la Unión Europea, la reforma realizada en el tratado de Lisboa*. Valencia: Tirant Lo Blanch, 2008.

- HUELIN MARTÍNEZ DE VELASCO, Joaquín. «La cuestión prejudicial europea». ALONSO GARCÍA, Ricardo eta UGARTEMENDIA ECEIZABARRENA, Juan Ignacio (zuzendariak). *La cuestión prejudicial europea*. European inklings (EUi) 4. zb. Oñati: HAEE-IVAP, 2014. 44-60.orr.
- KOTZUR, Markus. «Article 267 [Preliminary Rulings] (ex Article 234 TEC)». GEIGER, Rudolf, KHAN, Daniel-Erasmus eta KOTZUR, Markus. *European Union Treaties: Treaty on the European Union Treaty on the Functioning of the European Union*. 1. edizioa. Oxford: C.H. BECK – HART, 2015. 892-903.orr.
- MARTÍNEZ CAPDEVILLA, Carmen. «La decisión de plantear la cuestión prejudicial y su control por el TJUE (Un diálogo iniciado por el juez a quo y presidido por la utilidad para este, aunque no solo...)». ALONSO GARCÍA, Ricardo eta UGARTEMENDIA ECEIZABARRENA, Juan Ignacio (zuzendariak). *La cuestión prejudicial europea*. European inklings (EUi) 4. zb. Oñati: HAEE-IVAP, 2014. 61-79.orr.
- STEINER, Josephine, WOODS, Lorna, TWIGG-FLESNER, Christian. *EU Law*. 9. edizioa. New York: Oxford University Press, 2006.
- WEATHERILL, Stephen. *Cases and materials on EU Law*. 7. edizioa. New York: Oxford University Press, 2006.

EBJAren EPAIAK:

- *Amministrazione delle Finanze dello Stato v SpA Simmenthal* (106/77), 1978.03.09.
- *Da Costa en Schaake NV, Jacob Meijer NV, Hoechst-Holland NV v Nederlandse administratie der belastingen* (28/62, 29/62 eta 30/62 kasu pilatuak), 1963.03.27.
- *Eurowings Luftverkehrs AG v Finanzamt Dortmund-Unna* (C-294/97), 1999.10.26.
- *Flamino Costa v ENEL* (6/64), 1964.07.15.
- *Foto-Frost v Hauptzollamt Lübeck-Ost* (314/85), 1987.10.22.
- *Gemeente Almelo eta besteak v Energiebedrijf IJsselmij NV* (C-393/92), 1994.04.27.
- *Gestoras pro Amnistía eta besteak v Kontseilua* (C-354/04), 2007.02.27.

- *Grimaldi v Fonds des maladies professionnelles* (C-322/88), 1989.12.13.
- *León Van Parys NV v BIRB* (C-377/02), 2005.03.01.
- *Parfums Christian Dior SA eta Parfums Christian Dior BV v Evora BV* (C-337/95), 1997.11.4.
- *Paul Miles eta besteak v Eskola Europarrak* (C-196/09), 2011.06.14.
- *Pretore di Salò v X* (C-14/86), 1987.06.11.
- *Srl CILFIT -likidazioan- eta beste 54 sozietate v Ministero della Sanità eta Lanificio di Gavardo SpA v Ministero della Sanità* (283/81), 1982.10.06.
- *Van Gend & Loos* (26/62), 1963.02.05.
- *Wiener SI GmbH v Hauptzollamt Emmerich* (C-338/95), 1997.11.20.
- *Ynos kft v János Varga* (C-302/04), 2006.01.10.

BESTELAKO ITURRIAK:

- Dámaso RUIZ-JARABO COLOMER Abokatu Orokorraren konklusioak. Konklusioak: 2001.06.28. EBJAren Epaia: *François De Coster eta Collège de bourgmestre et échevins de Watermael-Boitsfort* (C-17/00), 2001.11.29.
- EBJAren Gomendioak: «*Recomendaciones a los órganos jurisdiccionales nacionales relativas al planteamiento de cuestiones prejudiciales*». (EBAO 2012/C 338/01), 2012.11.06.
- Francis Geoffrey JACOBS Abokatu Orokorraren konklusioak. Konklusioak: 1997.07.10. EBJAren Epaia: *Wiener SI GmbH v Hauptzollamt Emmerich* (C-338/95), 1997.11.20.